


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

Gradu amaierako lana

**Diskurtso-gaitasunen azterketa euskaraz
ikasten diharduten helduengan:
ahozko ipuin-kontaktak aztergai**

Amaiur Irastorza Adin

Euskal Ikasketak Gradua

2020-2021 Ikasturtea

Tutorea: Amaia Munarriz Ibarrola

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

Laburpena

Euskaraz ikasten diharduten helduen diskurtso gaitasunak aztertzea da lan honen helburu nagusia, beti ere ahozko ipuin-kontaktak oinarri hartuz. Horretarako, Ipar Euskal Herriko euskaltegi batean B2 mailan dauden 6 helduren ahozko narrazioak aztertu dira, kontuan izanda Helduen euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren (HEOC) arabera, B2 mailan narrazioen ulermen eta ekoizpena ageri direla jada bereganatuta edota bereganatu beharreko testu-generoen artean.

Hainbat dira haur euskaldunengan ahozko narrazioetan gaitasun diskurtsibolinguistikoak aztertu dituzten lanak (Almgren & Manterola 2013, Lascano & Manterola (argitaratzeaz), Manterola 2012, Manterola 2015...). Lan horietan elebitasun profil desberdina duten bi taldeen (euskara lehen hizkuntza dutenak eta euskara murgiltze bidez jaso dutenak) ahozko ekoizpenak aztertu dira longitudinalki. Haurren ahozko narrazioetako trebetasun linguistiko-diskurtsiboak aztergai izan dituzten ikerketa horiek erakutsi dute elebitasun profil desberdinetako haur elebidunen artean antzekotasunak daudela zenbait trebetasun diskurtsiboetan, besteak beste, ipuina kontatzeko autonomian, eta egitura narratiboan eta antolatzaile eta artxikonektoreen erabileran. Aldiz, beste batzuetan (hiztegia, izen-kohesioa, aditz-kohesioa), bi taldeen arteko aldeak aurkitu dira.

Lan honetan, aurreko horiei jarraituz, beste elebitasun-profil batek dituen gaitasun linguistiko-diskurtsiboak aztertu ditut, euskara heldutan ikasten ari direnenak, hain zuzen. Bigarren hizkuntzaren jabekuntzako ikerketek erakutsi dute elebidun berantiarrek elebidun goiztiarrekiko hainbat ezberdintasun agertzen dituztela hizkuntza prozesatzerakoan, eta hain zuzen hori aztertu nahi izan dut.

Lanaren corpora honakoa da: euskalduntzen ari diren helduen 6 ahozko narrazio (N=6), haurren ikerketen dispositibo berbera baliatuz jasotakoak. Ahozko narrazio horietan honako 4 alderdi hauek aztertu dira: Kontaketarako autonomia, egitura narratiboa eta testu antolatzaile eta artxikonektoreen erabilera, Lexikoa eta ezjakintasunaren aurrean hartutako jarrerak, izen kohesioa eta aditz kohesioa.

Emaitzek erakutsi dute, parte hartzaileek oro har autonomia handia dutela, ehuneko kopuru handi batek egitura narratibo osatuak egiteko gaitasuna duela eta testu antolatzaileen erabilera handiena gaur egun euskara presentean eta erabilien duten parte

hartzaileek egiten dutela. Lexikoaren inguruan esperotakoa baina transferentzia gutxiago aurkitu dira frantsesetik, eta hiztegi aberastasun handiena, eremu euskaldunena dutenek edota euskarazko kontsumo handia dutenek erakutsi dute. Izen-kohesioan ipuineko pertsonaia guztien agerpen eta azalpenak ez dira eman espero zen bezala eta aditz-kohesioari dagokionez, denbora ainguraketa nahikoa kopuru txikian eman da eta denbora hausturak ere egin dituzte, gehienak euskara beranduago bereganatzen hasi diren parte hartzaile horiek; agerian utziz, beraz, aditz kohesioaren alderdia, alderdi zailagoa izan daitekela aurretiko ikerketek aipatu bezala.

Emaitzen ondorio gisa, elebitasun- profil desberdinetan hizkuntza jabekuntza prozesuan ematen den alde handiena alderdi linguistikoetan antzematen dela baieztatu da, lehenagotik egindako zenbait ikerketetan esandakoa berretsiz. Aldiz, gaitasun diskurtsiboetan, profil bateko zein besteko elebidunetan aldea ez dela horren handia ikusi da, testuinguruaren, eskolatzeko hizkuntzaren, adinaren edota egunerokotasuneko hizkuntza kontsumoaren eraginez.

Bestalde, lanaren inplikazio didaktikoei dagokienez, lan honek aukera eman du identifikatzeko zein alderdi diskurtsibo-linguistiko diren zailagoak ikasten heldu hauentzat eta, beraz, zeintzuk landu beharko liratekeen gehiago ikuspegi didaktiko batetik.

Aurkibidea:

1. Sarrera.....	5
2. Helduen euskalduntzea: HEOC curriculum.....	5
3. Bigarren hizkuntzaren jabekuntza.....	7
4. Ahozko ipuin-kontakteta euskaraz: aurrekariak.....	8
5. Lanaren helburua, ikerketa-galderak eta aurreikuspenak.....	12
6. Metodologia.....	14
7. Emaitzak.....	19
8. Emaitzen eztabaida eta ondorioak.....	27
9. Erreferentziak.....	30
10. Eranskinak.....	32

1. Sarrera

Lan honetan, euskalduntze prozesuan dauden helduen gaitasun linguistiko-diskurtsiboak aztertuko ditut ikerketa enpiriko batean oinarrituta. Hain zuzen, B2 mailan dauden helduen ahozko narrazioen corpus bat bildu eta aztertu dut.

Elebitasun profil desberdineko haurrengan egindako azterketak aurrekari gisa hartuta, eta testu-generoen ikuspegitik, euskara heldutan bereganatzen ari diren heldu hauen ahozko narrazio gaitasuna aztertu dut. Lanaren helburua da euskaraz jabekuntza adin berantiarra goa duten heldu hauen narrazio gaitasunak deskribatzea, eta beste elebitasun profil eta ezaugarriak dituzten dituzten euskaldunen gaitasun linguistiko-diskurtsiboekin alderatuta antzekotasun eta aldeak identifikatzea.

Horretarako, honako egitura hau jarraituko dut lan honetan. Hasteko, Helduen Euskalduntzearen oinarritzko Curriculumari (HEOC) erreparatuko zaio maila bakoitzean lantzen diren testu-generoak eta gaitasun linguistiko-diskurtsiboak aurkezteko. Ondotik, bigarren hizkuntzaren jabekuntzaz arituko gara labur. 4. atalean, euskaldunengan ahozko narrazio gaitasunak aztertu dituzten lanak berrikusiko ditut. 5. Atalean ikerketa enpirikoaren helburu eta aurreikuspenak zehaztuko ditut. Ondotik 6. atalean zehaztasun metodologikoak eskainiko ditut parte-hartzaileen, prozeduraren eta analisiaren inguruan. 7. atalean emaitzak jasoko ditut, eta amaitzeko emaitza horiek eztabaidatuko ditut eta lanaren ondorio nagusien berri emango dut.

2. Helduen euskalduntzea: HEOC curriculumua

Helduen euskalduntzean erreferentziazkoa da Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE), Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen eta hezkuntzarako lan egiten duen instituzioa. Erakundearen izenak berak aditzera ematen duenez, helburu nagusia helduen alfabetatze eta berreuskalduntzea du, eta horretarako hainbat esparru eta erakunderekin elkarlanean aritzen da.

Beste eginbeharren artean, HABE helduak alfabetatu eta euskalduntzeko curriculumak sortu, diseinatu eta aplikatzeaz arduratzen da, irizpide soziolinguistikoak kontuan hartuz eta plangintza egokiak eginez (HEOC, 2015). HABEk Europako Markoari jarraituz, euskarari lotutako hizkuntzen jabekuntza prozesuko sei maila definitzen ditu

euskaltegi-tako langileekin elkarlanean egituratutako Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean (HEOC). HEOC-en maila bakoitzerako zehazten da zein testu-genero eta mota bereganatuta beharko lituzketen ikasleek izan ahozkoan, izan idatzian, zein irakurrian.

Lan honetan aztergai dudan corpusa B2 mailari dagokio eta ipuin kontaketa izango denez parte hartzaileek ekoitziko dutena, garrantzitsua iruditzen zait adieraztea HEOCek (2015) istorio edo ipuin kontaketei buruz aipatzen duena maila honetarako zein lehenagorako ere. Euskara ikasten diharduten ikasleek, B2 maila baino lehen bereganatuta behar lukete ahozkoan ipuin klasikoen ulermena eta idatzizkoan pasadizo edo kontaketa sinpleen ulermena. Eta B2 mailako helburuetan jasotzen da ahoz gertaeren kontaketak eta ipuinak ekoiztea, eta idatziz ipuin eta kontaketen ulermena eta kontaketak ekoiztea.

HEOC curriculumean testu-generoek gain, testuen barneko gaitasun testualen garapena ere zehazten da, eta horietan, hizkuntzaren aspektu zehatzagoei egiten zaie erreferentzia.

Adierazpide testualei dagokienez, B2 maila honetara iristerako, ikasleak nahikoa baliabide izan beharko lituzke jada esaldi eta ideien arteko loturak eta konexioa egiteko, izan testu antolatzaileen bitartez, izan puntuazio marka ezberdinen bitartez. Aditz kohesio eta modalizazioari begiratuta ere, ikasleak gai izan beharko lirатеke haien ekoizpenetan lotura egokiak egiteko eta aditz denbora ezberdinak bereizi eta erabiltzeko. Adjektiboak eta adberbioak ugariak izan beharko lituzkete barneratuta luketen hiztegian eta erabiltzeko ere gai izan beharko lirатеke B2 maila honetara iristerako.

Adierazpide linguistikoei erreparatuz, maila honetan baliabide ugari eta anitzak beharko lituzkete ekoizpen nahiko beteak eta osoak egiteko. Fonetikoki azentu aldaketak bereizteko gaitasuna lortu beharko lukete testuinguruaren arabera. Lexikoan hiztegi orokor nahikoa zabala eduki beharko lukete eta baita sinonimo ugari ere. Deklinabidean ia kasu marka guztiak izan beharko lituzkete ezagun eta singular plural zein mugagabeaz baliatzeko gai izan beharko lirатеke. Izenordain eta erakusle guztiak ikasita beharko lituzkete B2 mailarako eta gainera B2 maila honetan indartuak ere ikasi beharko lituzkete. Adjektibo eta adberbioek gain, elkarketa eta eratorpen bitartez hitz berriak sortzeko gaitasuna lortu beharko lukete. Aditzari dagokionez indikatibo, baldintza, ahalera eta agintera ezagutu beharko lituzkete hiru denboretarako: bai orainaldi, lehenaldi zein

etorkizunerako, eta baita subjuntiboa ere orainaldiko formetarako. Azkenik, sintaxiari begira, perpaus bakunak guztiz menderatu beharko lituzkete eta baita perpaus elkartuetako zenbait forma ere.

3. Bigarren hizkuntzaren jabekuntza

Bigarren hizkuntzaren (H2) jabekuntza prozesua hizkuntzalari askoren ikergaia izan da azken urtetan zehar. Lehen hizkuntzaren eta bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren inguruan egindako ikerketa gehienetan garapen aroak eta hiztunen ezaugarriak izan dira ikergai nagusi. Lan horiei esker badakigu jabekuntza eta garapen bakoitzerako, burmuineko gune eta funtzio bakoitzak, garai eta aro kritiko ezberdinak erakusten dituela (Weber-Fox & Neville, 1996). Hala, Meiselek (2012) dioenez, garai batean ikerketa gehienak H1 eta H2 hizkuntzetan zentratzen ziren nagusiki; gerora ordea, 2H1 (bi ama hizkuntza) eta H2 goiztiarra/berantiarra delakoak bereiztu behar direla ikusi da. Azken horiek, ikerlari eta hizkuntzalari guztien artean adostasunik egon ez arren, Meiselek (2012) lehena, 8 urtez azpi ikasten hasitako eta ama hizkuntza ez den horri erreferentzia egiteko eta bigarrena, adin horretatik goiti hizkuntza ikasten hasi direnei erreferentzia egiteko. Hala, gaur egungo literaturan lau elebitasun-profil horiek bereizten dira.

H1 eta H2 jabekuntzaren inguruko ikerketetan oinarrituta badakigu bigarren hizkuntza nerabezarotik aurrera ikasten hasteak zailtasun gehigarriak ekartzen dituela eta gutxitan, inoiz ez esatearren, iristen dela H2 berantiarra txikitatik ikasitako hizkuntza baten mailan menperatu eta erabiltzera (Clahsen & Felser, 2006).

Hizkuntzaren alderdi zehatzagoei erreparatuta, H1 eta H2ren jabekuntza prozesuan, bi profilen arteko antzekotasun nabariak lexikoan, generoa, subjektu-aditza eta komuntadura bezalako alderdi gramatikaletan eta prozesamendu semantiko-lexikoan ikusten dira, eta alde handienak berriz, egitura sintaktiko konplexuetan, H1ak H2an izaten duen eraginean eta burmuinaren aktibitatean ikusten dira, beti ere kontuan hartuta, horren barruan, esaterako H2 goiztiar eta H2 berantiarren artean desberdintasunak badirela. (Clahsen & Felser, 2006).

4. Ahozko ipuin-kontaketa euskaraz: aurrekariak

Jabekuntzareko adin eta modu ezberdinei erreparatu ondoren, atal honetan ahozko ipuin kontaketa jarriko dut arreta, eta euskal haurren ahozko narrazioen inguruko lanen emaitza nagusiak aurkeztuko ditut.

Euskarazko ahozko narrazioen jabekuntza aztertu duten lanek euskara H1 eta H2 goiztiarra duten haurren ipuin-kontaketa aztertu dituzte nagusiki (Almgren & Manterola 2013, Lascano & Manterola (argitaratzeaz), Manterola 2012, Manterola 2015).

Lehenik, Komunikazio eta testuen ekoizpenaren jabekuntzari erreparatuta, hauxe dio Manterolak (2012) Bronckart aipatuz: “Haurrak testuak ekoizten ikasten du, ez perpausak ekoizten. Hizkuntzaren ekoizpena testuetan gauzatzen da, ahozkoak zein idatzizkoak, luzeak zein laburrak... baina denak ere esangura komunikatiboa dutenak, hau da testuinguru fisiko eta sozial jakin batean, helburu batekin ekoiztuak izan direnak (Bronckart, 1996)”. Manterolak (2012) adierazten duen bezala, testu genero eta komunikatibo bakoitzaren jabekuntza bizitzaren momentu bati lotzen zaio, testuinguruak eragindako beharren arabera. Hala bereganatzen dituzte haurrek pixkanaka gaitasun diskurtsiboak inguruak eragindako behar eta nahien arabera.

Euskarari dagokionez, hainbat ikerketa egin dira ahozko narrazio edo ipuin kontaketa oinarrituta euren hizkuntza jabekuntza aztertzeko testu-generoen ikuspegitik. Haurrek ohikoa edo egunerokotasunean gertu izaten duten testu-generoa da ipuin kontaketa edo narrazioa, horregatik askotan aztertu izan da psikolinguistika arloan haurren diskurtso gaitasunak ezagutzeko (Almgren & Manterola, 2016). Horrez gain, ikertzaile horiek dioten bezala, ipuin kontaketa tradizio kultural handiko jardura da, eta horrek, “adin ezberdinetako haurrak ahozko zein idatzizko diskurtso jarraitu eta koherente batean sartzeko aukera ematen du. (Cameron 2001)” (Almgren & Manterola, 2016, 32. or.)

Euskal Herria, munduko beste eremu batzuk bezala, komunitate elebiduna da, eta hortaz, interesgarria da ikustea hizkuntza jabekuntza nola gertatzen den elebidunengan. Hain zuzen, orain arteko lanetan, ipuin-kontaketa testu-generoa aztertu da H1 eta H2 goiztiarra duten elebidunengan euren bi hizkuntzetan, bi elebitasun profil horien arteko hizkuntzaren garapena alderatzeko, batetik, eta murgiltze ereduaren lorpenak ere

aztertzeko H2 goiztiarren (Almgren & Manterola 2013, Lascano & Manterola (argitaratzeak), Manterola 2012, Manterola 2015...).

Ikerketa horietan guztietan dispositibo metodologiko berbera jarraitu da haurren ahozko narrazioa ekoitzarazteko: heldu batek ipuina kontatzen zien haur batzuei ilustrazioez baliatuta (euskarazko kontakizunetan *Mattin Zakuren* ipuina *Centellita* gaztelaniaz edo *Étincelle* frantsesez), eta gero haurrek binaka jarrita, ipuina birkontatu behar zuten, beste haur batzuei kontatuko baliete bezala. Ipuin kontaketa horiek elebidunen bi hizkuntzetan jaso dira, eta horrela posible izan da hizkuntzaren hainbat alderdi aztertu eta alderatzea norbanakoaren bi hizkuntzetan.

Ikerketa bakoitzak hizkuntza alderdi bat edo beste aztertu du, eta honako hauek dira lortu diren emaitza nagusiak.

Autonomia narratiboan, ipuina kontatzen duenak istorioa hasi eta buka osorik kontatzeko duen gaitasunari erreparatzen zaio.

Lascanok eta Manterolak (argitaratzeak) diotenez, euskara H1 zein H2 goiztiarra dutenen kasuan, emaitza antzekoak lortu zituzten. 5-6 urterekin, gutxi gorabehera haurren laurdenak behar izaten zuen bataz beste helduen laguntza handia ipuina kontatzeko eta 8-11 urte bitarteko haurren kasuan, ia haur guztiak izan ziren gai, ipuina hasi eta buka bakarrik kontatzeko. Gaztelania eta frantsesezko kontaketen kasuan, emaitzak bestelakoak izan ziren. 5-6 urterekin H1 erdera zuten haurren laurdenak soilik behar izan zuten helduaren laguntza handia, eta horien aldean H2 goiztiarra erdera zuten haurren erdiak baino askoz ere gehiagok behar izan zuten laguntza handia. 9-10 urterako erdarazko kontaketen haur guztiak ziren gai ipuina hasi eta buka kontatzeko.

Egitura narratiboari erreparatuz, *Mattin Zaku* eta *Centellita* ipuinen ekoizpenetan ikusi zuten adinaren arabera, osoagoak izaten zirela egiturako zati bakoitzeko kontaketa eta loturak (Almgren & Manterola, 2013).

Manterola eta Almgrenen (2013) ikerketen emaitzek erakutsi zuten, oso arraroa izaten da adin guztietan hasierako egoera istorioan ez ateratzea. Nahiz eta umeek istorioan aurrera egin ahala autonomiarik apenas eduki, gehienek ekoizten dute hasierako fase hau, izan euskara H1 zein H2 goiztiarra. Ekintza nagusien kontaketei dagokionez, datu aipagarriena izan zen 5 urterekin euskara H2 goiztiarra zuten haurren %94,6ak nahikoa

ongi egiten zuela ekintza nagusien kontaketa, eta aldiz, gaztelania H2 goiztiarra zuten haurren %5ak soilik egiten zuela nahiko kontaketa osatua. Horretan eskolak berebiziko eragina duela ezin ukatuzkoa dela esan zuten, izan ere, 8 urterekin haur guztietan (izan H1, zein H2 goiztiarra) azaldu ohi ziren ia ekintza guztiak istorioan (Almgren & Manterola, 2013).

Testu antolatzaile eta artxikonektoreei erreparatuta, hurrek ipuina kontatzerako momentuan istorioaren denborazko jarraipena eta ekintzen loturak nola egiten zituzten aztertu da (Almgren & Manterola, 2016 eta Lascano & Manterola, argitaratzeaz). Emaitza nagusia izan zen 5 urterekin istorioan zehar ekintzak lotzeko ekoizten zituzten antolatzaileen %80a *eta/ eta gero* artxikonektoreak zirela (Almgren & Manterola, 2016). 8 urterekin denborazko testu antolatzaileen erabilerak gora egiten zuen, eta 11 urterekin jada, artxikonektoreak askozaz gutxiago ziren, eta bestelako testu antolatzaileen erabilerak gora egiten zuen (Almgren & Manterola, 2016). Lascano eta Manterolak diotenez (argitaratzeaz) *azkenean*, *-ean* menderagailua, *orduan* eta *hurrengo egunean* bezalako testu-antolatzaileek denborazko ñabardurak ezartzen dituzte ipuin-kontaktetan, eta horixe da, hain zuzen ere, adinean aurrera egin ahala euskara H1 zein H2dunengan ikusi den hizkuntza-garapenaren joera (Lascano & Manterola, argitaratzeaz). Beraz, H1 edo H2 goiztiarra izateak baino gehiago, adinak eragiten duela pentsa daiteke, Almgren eta Manterolak adierazi bezala (2016).

Almgren eta Manterolak (2016), bestalde, lexikoari ere begiratu bat bota zioten; hain zuzen, ipuina kontatzerako momentuan kontalariak duen hiztegi aberastasuna eta ezjakintasunaren aurrean hartzen dituen estrategiak aztertu zituzten.

Oro har, antzeko emaitzak ageri ziren H1 eta H2 haurrengan hiztegiaren aldetik, eta hutsune lexikalen aurrean hurrek hartu zituzten jarrerari dagokionez, 5 urterekin ugari ziren gabeziak, baina pixkanaka gutxitu egiten ziren eta 11 urterako jada oso murrizak izaten ziren huts hauek (Almgren & Manterola, 2016).

Huts hauen aurrean hurrek erabilitako baliabideei dagokienez, H2 goiztiarrekoen multzoak 5 urterekin ipuineko irudiei erreferentziak eginez, edo zuzenean helduari itzulpena galdeginez lortzen zuen nagusiki hiztegia betetzea. 8 eta 11 urterekin, H1eko (gaztelaniako) hiztegia erabili zuten askotan euskal morfologiara eramanda. H1 euskara

zutenek ere, noizean behin erabiltzen zituzten baliabide hauetako batzuk, baina askoz ere maila baxuagoan (Almgren & Manterola, 2016).

Izen kohesioan gaien eta azpigaien aurkezpena eta berrartzea aztertu izan da.

Manterolak (2012) ikusi zuen bost urterekin, lehen pertsonaiaren aipamen eta aurkezpenak euskara H2 goiztiarren taldean egokiagoak zirela (%32,4) euskara H1 taldekoenean baino (%12,5). Bigarren mailako pertsonaien kasuan, lehen aipamenak ahulak izan arren emaitzak egokiagoak izan ziren euskara H1 zein H2 goiztiarren taldeetan 1. mailako pertsonaiarekin alderatuz.

Haurren ahozko narrazioetan aztertu den beste alderdi linguistiko bat da aditz-kohesioa. Manterolak (2012) erakutsi zuen, 910 urtetarako euskara H1 zein H2 goiztiarra zuten haur guztiek lehenaldian ainguratzen zutela ipuina, eta ipuin guztian zehar mantentzen zutela lehenaldiko ainguraketa hori. Zenbaitetan hala ere, ohikoak diren haustura batzuk ageri ziren bi haur multzoetan (Manterola, 2012). Aldiz, gaztelaniazko kontaketa, Manterolak (2015) denbora ainguraketari eta aditz denboren erabilerari erreparatu zion. Bertan erakutsi zuen gaztelania H1 zein H2 goiztiarra duten 5 eta 8 urteko ia haur guztiek iraganean ainguratzen dutela ipuina. Istorioan zehar denbora mantentzeko gaitasuna 5 urterekin, gaztelania H1eko haur gehienek erakutsi zuten, nahiz eta orainaldirako jauziekin zenbait haustura gertatu. H2 goiztiarra gaztelania zutenen kasuan ia beti gertatzen ziren lehenaldi eta orainaldiaren arteko denbora hausturak. 8 urtetarako, gaztelania H1 zein H2 goiztiarra zuten gehienek denbora iraganean mantentzen zuten, hausturarik gabe.

Labur esanda, euskara H1 eta H2 goiztiarra duten haurren ahozko narrazioetan trebetasun linguistiko-diskurtsiboak aztergai izan dituzten ikerketek elebitasun profil desberdina duten elebidunen arteko antzekotasun eta ezberdintasunak aurkitu dituzte. Ipuina kontatzeko autonomian, eta egitura narratiboan eta antolatzaile eta artxikonektoreen erabileran, antzeko trebetasunak ageri dira bi profiletako haurrengan. Hiztegiari dagokionez, bi elebidun-taldeetan antzekoa zen huts lexikalen kopurua, baina ikusi da huts horien aurrean, H2 goiztiarra duten multzokoek gehiagotan erabiltzen dutela haien H1eko hiztegia, bigarren hizkuntzako morfologiara eramanda. Izen kohesioan 5 urterekin pertsonaia guztien azalpen eta loturak oso ahulak izaten dira haur guztiengan, euskara H2 goiztiarra duten haurrek lehen mailako pertsonaiak egokiago azaldu arren.

Amaitzeko, aditz kohesioan aurkitu da H1 eta H2 goiztiarren arteko alderik handiena; 5 urtetarako gehienek kontakizuna lehenaldian ainguratzen badute ere, H2 goiztiarreko taldeak haustura gehiago erakusten ditu orainaldi eta lehenaldiaren artean, kontakizunean denbora mantentzea lortu gabe.

5. Lanaren helburua, ikerketa-galderak eta aurreikuspenak

Aurreko atalean ikusi bezala, ahozko narrazioak aztergai dituzten lanek erakutsi dutenez, euskara H1 eta H2 goiztiarra dutenen artean alderik badago ere, ez da izugarria bien arteko gaitasunen tartea zenbait trebetasun linguistiko-diskurtsiboei dagokienez. Gaztelania H1 eta H2 goiztiarra dutenen artean ordea, nabarmen handiagoa da aldea. Hein handi batean, ikerlariek ondorioztatzen dute hori egungo eskolako hizkuntza erduei esker lortu dela, hots, murgiltzeari esker.

Alabaina, ikusteko dago, euskara H2 heldutan ikasten dutenek, hots, jabekuntza adin berantiarra dutenek ere antzeko trebetasun linguistiko-diskurtsiboak garatuko dituzten. Nik dakidala, orain artean ez da ikerketarik gauzatu euskara H2 berantiarra duten hiztunen narrazio gaitasunaren inguruan. Lan honen helburua horixe da; euskara ikasten diharduten helduen, horien artean euskara H2 gisa ikasten dutenak, diskurtso-gaitasunak aztertzea enpirikoki, haur euskaldunen trebetasunak aztertzeko erabili den dispositibo metodologikoa erabilia.

HEOC curriculumaren arabera ahozko narrazio gaitasuna B2 mailako helburuen artean dago (ikus 1. atala); B2 mailaren amaieran ipuinak ongi ulertu eta ahoz ekoizteko gaitasuna lortu beharko lukete ikasleek. Hartara, maila horretan dauden ikasleen trebetasunak ezagutzea da nire xedea eta elebitasun profil eta adin desberdina duten haurren gaitasun linguistiko diskurtsiboekin alderatuta, dituzten antzekotasun eta aldeak ezagutzea.

Kontuan hartu behar da ikasle hauek B2 mailara iristeko bidean direla behaketa egin zaien momentuan. Beraz, azterketa honek aukera emango du identifikatzeko zein hizkuntzaren alderditan duten zailtasun gehien, hots, B2 mailarako lortu beharreko horietan akats edo hutsune gehien non duten. Horrek aukera emango du, aurrera begira, gehiago landu beharreko alderdiak identifikatzeko eta horiek lantzeko, testu-genero hori hobeto ekoitz dezaten.

Haur euskaldunen ahozko narrazioetako emaitzak aintzat hartuta, euskara H1 gisa edo H2 goiztiar gisa garatzen ari diren haurren garapenean antzeman diren hainbat trebetasun diskurtsibo (autonomia, egitura, etab.) haur helduenen (9-11 urte) antzekoak izatea (edo are garatuago agertzea) aurreikusten dut lanean, jabekuntza adinak trebetasun diskurtsiboetan hainbesteko eraginik ez duela asumituta. Aldiz, alderdi linguistikoagoetan, hala nola hiztegian edo aditz-kohesioan baliteke zenbait zailtasun agertzea, kontuan izanda input urriagoa izan dutela euskaraz, eta ondorioz, gaitasun txikiagoa izan dezaketela.

Zehatzago, aurrekariak ezagututa eta HEOC curriculumak maila horretarako zehazten duena kontuan izanda, nire aurreikuspenak honako hauek dira aztergai izango ditudan analisi-elementuetarako.

Autonomia narratiboa, egitura narratiboa eta testu antolatzaileen eta artxikonektoreen erabilerari dagokionez, ipuinak ahoz kontatzeko gaitasuna B2 maila honetan garatzen dela zehazten du HOECek, eta bere ebaluazio irizpideei jarraiki, maila honetarako ebaluazio irizpideetan gutxienezkoa lortzeko zera zehazten du; “Ideiak lotzeko, baliabide-multzo zabala du (antolatzaileak, hitzen ordena eta abar). Hala ere, izaten ditu tarteka zenbait hutsune, eta atzera-aurrera ibili behar izaten du zenbaitetan, baina entzuleak ez du orokorrean hariari jarraitzeko arazorik izaten” (HEOC, 2015, 188. or.). Kontuan izanda, gainera, irakaslearen ereduari jarraiki ipuina birkontatu egingo dutela, ipuina hasi eta buka egiteko eta lotura egokiak egiteko gai izango direla aurreikus daiteke. Denborazko testu antolatzaile ugari ezagutu beharko lituzkete, eta ohikoenak edo ezagunenak diren horiek agertzea espero daiteke zenbait kasutan, artxikonektoreekin batera. Gainera, ipuinen egitura narratiboa ezagutuko dutela suposatzen da, haien H1ean halakoak ekoizteko gaitasuna izanda, ikasten diharduten euskaran egitura hori nahiko osatuta ageriko dela pentsa daiteke, hiztun elebidunetan ohikoak diren transferentzien bidez (Manterola, Almgren & Idiazabal, 2013).

Lexikoari dagokionez, B2 mailan jada euskarazko nahikoa hiztegi aberatsa eduki beharko balute ere, aurreikus daiteke noizean behin H1eko hitzen bat edo beste tartekatzea kontaktetan, H2an hitz hori topatzeko zailtasunagatik edo ezagutza faltagatik. Ez da espero bestelako hutsune handirik eta pentsa daiteke, gainera, hitz baten faltan gai izango direla zenbait baliabide erabilia esan nahi duten hori esan ahal izateko, dela sinonimoen bidez, dela definizio edo bestelako azalpenen bidez. Kasuren batean,

ingurune “euskaldunagoren” batean bizi direnen kasuan gehienbat eta egunerokotasunean euskara presentego dutenengan, ereduko ipuinean ageri ez den hitzen bat edo beste azaltzea ere espero daiteke, haien hiztegi aberastasuna agerian utziz.

Izen kohesioaren barnean, parte-hartzaileak helduak izanik eta ereduan jasotakoa ondo ulertu eta gogoratuko dutela pentsatuz, pertsonaia guztiak aurkeztea espero da. Haien deskribapenei dagokionez, B2 maila honetan “ Pertsonak, lekuak eta gauzak deskribatzea: zerbait nolakoa den, non dagoen... “ (HEOC, 2015, 168. or.) kontatzeko gaitasuna bereganatuta behar lukete. Hortaz, gutxienez ereduan ageri diren deskribapenak haien kontaktetan ere azaltzea espero da.

Aditz kohesioari dagokionez, B2 mailarako menperatuta egon beharko lirateke aditz denbora gehienak (HEOC, 2015), horien artean, bai orainaldiko zein lehenaldiko denborak. Birkontaktaren aurretik entzungo duten kontaktetan lehenaldiko ainguraketa ondo identifikatuko dutela aurreikus daiteke. Beraz, birkontakteta lehenaldian eta modu egokian ainguratuko dela pentsatzen ahal da. Istorioan zehar, aditz kohesioa alderdi morfosintaxikoa izanik, denbora hausturaren bat agertu bai, baina oso gutxi izango direla aurreikusten dut, eta elkarrizketa zatietan ageri diren orainaldiko esanak ere, ereduan bezala ondo ekoitziko dituztelakoan nago.

6. Metodologia

6.1 Parte-hartzaileak

Donibane Lohizuneko AEK gau eskoletan euskaraz ikasten ari diren sei helduk hartu dute parte ikerketa honetan. Zehazki HABEk zehaztutako B2 mailarako prestatzen ari diren ikasleak dira. Ikerketa hau UPV/EHUko etika batzordearen oniritziarekin burutu da (erreferentzia: M10_2021_062) eta parte-hartzaile guztiek baimen idatzia eman zuten ikerketan parte hartzeko.

Elebitasun-profila ezagutzeko sortutako galdetegiko (ikus 1. eranskina) emaitzen arabera (ikus 1. taula), espero ez nuen aniztasuna aurkitu nuen hizkuntzen jabekuntza-adin, erabilera eta kultur kontsumoari dagokionez, euskara ez baita H2 berantiarra denentzat. Etxetik jasotako H1ari dagokionez, seitik bostek frantsesa izan dute haien H1, eta batek guraso batekin euskara eta bestearekin frantsesa. Euskara ikasten bi urte aurretik hasi ziren bi, bat ama-eskola garaian (3-6 urterekin), bestea bigarren hezkuntza garaian

(12-16 urterekin) eta beste biak heldutan. Etxe giroan hasi ziren ikasten seitik hiru, bakarra eskolan eta bi euskaltegian.

1.Taula: parte-hartzaileen ezaugarri soziolinguistiko nagusiak

	Juzoza	Madira	Miguti	Miaram	Bebera	Cetouz
H1	Frantsesa/ euskara	frantsesa	frantsesa	Frantsesa	frantsesa	frantsesa
Euskararen jabekuntza- adina eta eremua	< 2 urte, etxean	< 2 urte, familia giroan	3-6 urte, familia giroan	12-16 urte, eskolan	> 16 urte, euskal- tegian	> 16 urte, euskal- tegian
Bizilekua	Urruña	Senpere	Urruña	Urruña	Azkaine	Ziburu
Adina	25	53	65	39	60	29

Euskararen ahozko erabilerari erreparatuta, etxean bik frantses hutsean hitz egiten dute, bik frantsesez gehienetan eta beste bik frantsesez eta euskaraz antzera. Lanean hiruk frantses hutsean hitz egiten dute eta beste hiruk frantsesez gehienetan. Amaitzeko, aisialdian, lagunekin eta kalean, lauk gehienetan frantsesez egiten dute eta bik frantsesez eta euskaraz antzera. Euskararen bestelako erabilereaz galdetuta, euskara ikasten hasi aitzin, bik entzun edo irakurtzen zuten euskaraz egunero, batek astean behin, bik hilean behin eta bakarrak urtean behin edo inoiz. Egun ordea, lauk egunero entzun edo irakurtzen dute euskaraz eta bik astean behin.

Sei ikasleak lapurtarrak dira, nagusiki medebaldeko kosta ingurukoak. Eremu horretako datu soziolinguistikoei begiratuta, Euskal Herriko VI. inkesta soziolinguistikoaren emaitzen arabera (Eusko Jaurlaritza, 2016), Ipar Euskal Herrian, oro har, biztanleen %22,5a elebiduna da, %8,5a elebidun hartzailea eta %68,9a erdalduna. Bestalde, Hizkuntzen erabileraren VII. kale-neurketaren arabera (Soziolinguistika klusterra 2016), Lapurdi barnealdean euskararen erabilera %5,4koa da, eta azken bost urteetan 3,3 puntuko jaitsiera izan du euskararen erabilerak eremu honetan. Beraz, nahiko eskasa da euskararen erabilera eta hizkuntza gaitasuna ikasle hauen eremu soziolinguistikoan.

6.2 Prozedura

Lan honetan haurren ipuinak biltzeko Manterolaren (2010) dispositiboari jarraitu nion. Funtsean, aurrez ikertzaileak kontatutako ELEBILAB ikertaldeko hainbat lanetan erabili den *Mattin Zakuren* ipuin miresgarria birkontatzea eskatu zitzairen parte-hartzaileei. Ipuin horrek Adamen (1992) bost ataleko egitura narratiboari jarraituz, sarrera, desorekaldia, ekintzen atala, orekaldia eta amaiera ditu (Manterola, 2012). Kontaketan zehar, lagungarri gisara koloretako 12 irudiz osatutako eta hitzik gabeko liburuxka ere erabili zen (2. eranskina). Horietan istorioko irudi eta gertakari esanguratsuenak erakusten dira.

Laburbilduz, beraz, honelakoa izan zen datuak biltzeko prozedura: lehenik irakasleak ipuina kontatu zien irudien laguntzaz eta ikasle guztiek aldi berean entzun zuten ipuina. Ondoren, binaka sartu ziren gelan eta ondoan eserita batak besteari kontatu zion ipuina irudien laguntzaz.

Ipuina haurrentzako izan arren, lan honen helburuen artean bigarren hizkuntza goiztiarrarekin alderatzea egonda, dispositibo metodologikoa mantetzea erabaki nuen, hortaz, ipuina haurrei kontatu beharko baliete bezala kontatzea eskatu zitzairen parte-hartzaileei. Irakasleak ikasleei ariketaren hasieran eman zien kontsigna hauxe izan zen:

Jarraian, Mattin Zakuren ipuina kontatuko dizuet marrazkien laguntzaz, denek entzun dezazuen. Ondoren gelan sartuko zarete bikoteka, eta zuek kontatu beharko duzue ipuina marrazkien laguntzaz. Ipuin hauek ikastoletako haurrei erakusteko izango dira, eta beraz grabatuak izango zarete. Zuzenean hementxe haurrik ez dagoenez, batak besteari kontatuko diozue ipuina. Kontuan izan haurrek entzuteko izango direla grabaketak, eta beraz ahal duzuen hoberen kontatu behar duzuela ipuina.

Aipatzekoa da euskaltegiko klaseetan lehenagotik landua izan dela ipuinen ulermena eta ekoizteko gaitasuna indartzeko ariketaren bat edo beste, eta beraz ipuinen sorkuntza eta kontakizuna ez dutela guztiz jarduera ezezaguna ikasle hauek.

Behin grabaketak eginda, kontaketa guztiak transkribatu egin ziren (ikus 3. eranskina) Manterolaren (2010) irizpidei jarraituz eta ondoren aztertu egin ziren, jarraian adieraziko ditudan analisi-kategoriak jarraituz.

6.3 Analisia: aztertuko diren gaitasun diskurtsiboak

Ipuinen analisi kuantitatibo eta kualitatiboa egiteko, Almgren eta Manterola (2016), Manterola (2012), Manterola, Almgren eta Idiazabal (2013) eta Lascano eta Manterola (prentsan) lanetan oinarritu naiz. Hain zuzen, gaitasun diskurtsibo horiek Bronckarten (1996, in Manterola, 2012) testu arkitekturaren eredua dute abiapuntu. Zehazki honako alderdi hauek aztertu ditut:

6.3.1 Autonomia eta egitura narratiboa, eta testu antolatzaile eta artxikonektoreen erabilera

Ikasle hauek ipuinaren kontaketa hasi eta buka, egitura egoki batean eta zenbait testu antolatzailez baliatuta kontatzeko gai diren aztertu da. Azterketan, ikasleek laguntza behar izan duten ikusi da, eta baiezko kasuetan zein egoeratan edo istorioaren zein puntutan izan den.

Egitura narratiboaren behaketan, kontaketa modu antolatu, ordenatu eta osoan egiten den aztertu da. Hain zuzen, Manterolak (2012) erabilitako egituraren eskemari erreparatuko zaio ikasleek ekoiztiko ipuinen egitura narratiboa aztertzerakoan (hots, osagai guztiak ageri diren) Lehenik bost faseak (hasierako egoera edo disforia, desorekaldia, ekintzen garapena, orekaldia eta bukaerako egoera edo euforia) ageri diren edo ez aztertu da. Horretaz gain, kontuan hartu da fase bakoitzean ekintza edo egoera guztiak agertzea, eta guztiak ez azaltzekotan zenbat eta zein falta diren (1. Irudia):

Hasierako egoera edo disforia	Desorekaldia	Ekintzen garapena	Orekaldia	Bukaerako egoera edo euforia
Leku edota denbora ainguraketa	Mattin Zaku gaztelura erregeari dirua eskatzera irtetea	Azeria agertzea Mattin Zakuri	Mattin Zakuk dirua lortzea erregeak emanda	Euforia edo aberastasun egoera
Mattin Zaku aurkeztea		Azeria Mattin Zakuren esanetara geratzea		
Disforia edo pobretasun egoera		Otsoa azaltzea Mattin Zakuri		
		Otsoa Mattin Zakuren esanetara geratzea		
		Mattin Zakuk ibaia topatzea		
		Ibaia Mattin Zakuren esanetara geratzea		
		Erregeak 1. proba pasarazi Mattin Zakuri		
		Mattin Zakuk azeriari laguntza eskatzea		
		Mattin Zakuk 1. proba pasatzea		
		Erregeak 2. proba pasarazi Mattin Zakuri		
		Mattin Zakuk otsoari laguntza eskatzea		
		Mattin Zakuk 2. proba pasatzea		
		Erregeak 3. proba pasarazi Mattin Zakuri		
		Mattin Zakuk ibaiari laguntza eskatzea		
		Mattin Zakuk 3. proba pasatzea		

1. Irudia: *Mattin Zaku ipuinaren funtsezko egoera, ekintza eta gertakizunak.*

Azkenik, testu antolatzaile eta artxikonektoreei erreparatuko zaie Lascano eta Manterolari (prentsan) jarraituz. Hain zuzen, zenbat testu antolatzaile erabiltzen dituzten behatu da. Artxikonektoreez gain, zenbat eta zein denborazko edo bestelako testu antolatzaile azaldu diren ere aztertu da.

6.3.2 Lexikoa eta ezjakintasunaren aurrean hartutako jarrerak

Hiztegiari dagokionez, bi gauza aztertu dira:

Batetik, hiztegi aberastasuna eta hura erabiltzeko duten gaitasuna. Horretarako, haien kontakizunetako hiztegiari erreparatu zaio, eta irakaslearen kontakizuneko hiztegiarekin alderatu da. Entzun duten ereduaz gainera, bereganatuta duten hiztegi horri erabilgarritasuna emateko duten gaitasuna behatu da.

Bestetik, zailtasun lexikoen aurrean zer-nolako jarrerak hartzen dituzten aztertu da Almgren eta Manterolaren (2016) ikerketan bezala. Kasu honetan kontuan hartu beharrekoa da, frantsesa haien hizkuntza nagusia (eta gehienentzat H1 bakarra) izateaz gainera, euskararekin batera bertako komunitate elebiduneko beste hizkuntza dela, kasu honetan gainera, gaintik dagoena edo bien artean nagusi dena. Atal honetan bada, frantsesaren eragina haien kontakietan zer-nolakoa den ikusi da. Hain zuzen, frantses hitzak mailegatzen ote dituzten eta mailegatuta euskal gramatikara ekartzen duten aztertuko da eta, horrekin batera, zalantza lexikalen aurrean galderarik egin ote duten eta galdera horiek euskaraz edo frantsesez egin ote diren.

6.3.3 Izen kohesioa

Manterolari (2012) jarraituz, testuan zehar ageri diren pertsonaien aurkezpenak eta berrartzeak aztertuko dira izen kohesio mekanismoen artean. Besteak beste pertsonaia guztien aipamenak egiten diren, eta pertsonaien inguruan ea zer nolako azalpen eta deskribapenak egiten dituzten aztertu da.

6.3.4 Aditz Kohesioa

Aditzari bi alderdi ezberdinetatik erreparatuko zaio (Manterola, Almgren & Idiazabal, 2013). Batetik, ikusi da ikasleek haien ipuin kontakietan zein denboratan egiten duten ainguraketa. Hau da zein aditz denborarekin egiten duten ipuinaren narrazioa (elkarrizketa tarteak kenduta). Horri lotuta, kontakietan zehar denbora bera mantentzen ote duten aztertu dut eta hala ez bada, haustura zenbat aldiz eta zein formatan gertatzen den. Bestetik, zein aditz, zein modutan jokatuta, zein denboratan eta zuzen erabiltzen dituzten behatu da.


7. Emaitzak

Atal honetan emaitza nagusiak deskribatuko dira 4 ezaugarri erreparatuta: 1) Kontaketarako autonomia, egitura narratiboa eta testu antolatzaile eta artxikonektoreen

erabilera, 2) lexikoa eta ezjakintasunaren aurrean hartutako jarrerak, 3) izen kohesioa eta 4) aditz kohesioa.

7.1 Kontaketarako autonomia, egitura narratiboa eta testu antolatzaile eta artxikonektoreen erabilera

Parte-hartzaile guztiak izan ziren gai irudiez gaineko bestelako laguntzarik gabe ipuina hasi eta buka kontatzeko, horregatik kontaketarako autonomia erabatekoa izan zela esan daiteke, (% 100, ikus 2. Irudia).



2. Irudia: kontaketarako autonomia eta egitura narratiboa (%).

Parte-hartzaile batek momentu batean isilune bat egin eta galdu zela esan zuen, baina segundu gutxiren buruan, istorioa kontatzen jarraitu zuen inolako arazorik gabe (1):

- (1) ordun/ morroia ereman zuen berriro/ erregea erregearengana/ eta erregera oso haserre zen/ ordun eman zuen Mattin Zaku makil batera lotuta/ eman zuen sua/ (3´)/ **galdu naiz**/ eman zuen hor sua/ eta pa/e: Mattin Zaku esaten zuen/ baina hemendik nola aterako naiz?/ ba badut ura zakuan ordun/ ura aterata sua itzali zen/ eta/ ordun joan zen erregearengana ta erregea/ oso beldurtuta zen baina ze nahi duzu ze nahi duzu ordun orain?/ ba dirua nahi dut/ dirua/ ordun erregea bildu zuen diru guztiak. (Miguti¹)

Bestalde, 2. Irudian ikus daiteke, egitura narratiboari dagokionez, parte-hartzaile guztiek ez zutela egitura egoki eta osatua eraiki. Hain zuzen, % 16,67ak egituran gabezia

¹ Adibide bakoitzaren amaieran, parte-hartzailea identifikatu dut ezizena erabilita.

batzuk erakutsi zituen. Adibidez (2)an parte-hartzaileak egitura desordenatua aurkeztu zuen huts eta berrartze desegokiekin, eta zenbait pasarte aipatu gabe utzi zituen, batez ere ekintzen garapenen eremuan. Hain zuzen, (2) adibidean ikusten denez, parte-hartzailea jada gaztelura iritsi eta morroien eta erregearen arteko elkartze bat kontaktzen ari zenean konturatu zen ahaztu zitzaiola esatea gaztelurako bidean otsoa ere aurkitu zuela:

- (2) joan dira ikusterat/ e: erregea/ erranez bazela mutiko ttiki bat/ e: eta muttiko hori nahi zuela dirua/ eta hori aitzin barkatu/ ahantzi dut zerbait inportantea/ ikusi zuten ere otso bat bidean/ eta otso hori sartu zen bere zakuan ere/ eta bon/ erregea ez zen ados horrekin (Madira)

Parte-hartzaile berdinari, pixka bat aurrerago, guztiz ahaztu zitzaion kontaktzea oilategiaren ondoren morroiek zalditegira eraman zutela Mattin Zaku, eta bertan otsoa atera zela zakutik zaldi guztiak jateko (3).

- (3) ikusi zuten beraz Mattin Zaku oilotegian/ eta oiloak den denak jan ziren/ joan ziren ikustera erregea/ erranez/ ez dut ulertzen/ Mattin Zakuak jan ditu oilo guztiak/ bon bon/ mais behar dugu/ behar dugu erre muttiko hori (Madira)

Beste parte-hartzaile guztiek (% 83,33ak), bost ataleko egitura narratiboari jarraituz egitura egoki eta osatua kontatzeko gaitasun osoa erakutsi zuten, atal guztiak modu ordenatu eta osatu batean kontatu baitzituzten.

Testu antolatzaileen arloan, parte-hartzaileek batz best 18,83 testu antolatzaile erabili zituzten loturak egin eta istorioari jarraipena eman ahal izateko. 18 testu antolatzaile ezberdin azaldu ziren haien ekoizpenetan eta denera 113 agerpen izan zituzten.

2. Taula: testu antolatzaileen erabilera

	Juzoa	Madira	Miguti	Miaram	Bebera	Cetouz
Kopurua	21	24	21	29	13	5
Adibideak	-orduan x14 -biharamunean x4 -eta geroxo/ eta gero x3	-horregatik -beraz x11 -goiz batez -eta hor x6 -bat-batean -eta horri esker -bukaeran x2	-ordun x12 -beraz -berriro x4 -eta gero -azkenean -biharamunean -eta hor	-orduan x14 -eta horrela -lehen -berriz x3 -behin batean -eta gero -eta hor x5	-egun batez -orduan x7 -biharamunean -goiz-goizean -eta gero x2 -bat-batean	-beraz x4 -momentu batean

		-eta geroztik		-biharamunean x2 -eta orain		
--	--	---------------	--	-----------------------------------	--	--

Gehien erabili zutena *orduan/ eta orduan* testu antolatzailea izan zen. Denera, sei kontakketetan 47 aldiz azaldu zen. Ikus (4) adibidea:

- (4) sua emanen dugu/ **orduan** berritz/ bere zakuari/ ibai ibai!/ orain atera zaitez!/ eta ibai/ ez da gehio surik eta ura joaiten da gaztelura/ **orduan** erregina pixkat ikusten du bere/ bere gaztelua **orduan** erraten du/ zer nahi duzu? (Miaram)


Beraz, eta *eta hor* izan ziren *orduanen* atzetik gehien errepikatu zituzten testu antolatzaileak. (5) adibidean ikus daiteke parte-hartzaile horrek maiz erabili zituela aipatutako bi antolatzaileak. Esan beharra dago, *eta hor* antolatzailearen kasuan, batzuetan *hor* horrek lehendik aipatutako leku bati erreferentzia egiten diola, ikusi beltzatutako lehenengo *eta hor* horren kasuan. Beste kasuetan, antolatzaile gisara erabiltzen dute *hor/ eta hor* bai parte-hartzaile honek, eta baita beste gehienek ere.

- (5) nahi badu dirua lan behar du egin/ **beraz**/ behar duzue eraman muttiko ttiki hori oilotegiara/ **beraz** Mattin Zakuak sartu zen oilotegian/ **eta hor** baziren oilo pilaka/ **eta hor** axerria gose zen/ **beraz** zakutik ateratu da eta jan ditu oilo guztiak/ **beraz** morroiak goizean ikusi zuten beraz Mattin Zakuak oilotegian/ eta oiloak den denak jan ziren/ joan ziren ikustera erregea/ erranez/ ez dut ulertzen/ Mattin Zakuak jan ditu oilo guztiak/ bon bon/ mais behar dugu/ behar dugu erre muttiko hori/ **beraz/e**: beraz Mattin Zakuak **beraz**/ atxikitu/ barkatu/e: **beraz**/ eman zuten sua erretzeko Mattin Zakuak/ **eta/ hor** ohartu/ oroitu zen bazuela ura zakuan/ **beraz** ateratu zuen ur guztia (Madira)

Aipatutako hiruez gainera, beste hainbat antolatzaile ere azaldu ziren parte hartzaileen kontakketetan, baina banaketa ez guztiz orekatuan (ikus 2. Taula), besteak beste: *biharamunean, berriz, bat batean, azkenean, bukaeran, lehen (lehenik), geroztik...*

7.2 Lexikoa eta ezjakintasunaren aurrean hartutako jarrerak

Denera, ereduan ageri ez ziren 51 hitz berri erabili zituzten parte-hartzaileek, eta hitz berri horietako batzuk errepikatu egin ziren parte-hartzaile batean baina gehiagotan. 3. Irudian ikus daiteke parte-hartzaile bakoitzak zenbat hitz berri erabili zituen. % 50ak 10 hitz berri baino gehiago, eta denen batz bestekoa, pertsonako 11,17 hitzekoa izan zen.



3. **Irudia:** Parte-hartzaile bakoitzak ekoizitako hitz berri kopurua.


Irudian ikus daitekeenez, gainera, parte-hartzaileen artean alde handia dago. Batzuek apenas ekoitzi zituzten hitz berriak (Bebera, Cetouz, Miguti), beste batzuek berriz, ia aurrekoak halako bi ekoitzi zituzten. Adibidez, Juzoza parte-hartzaileak edo Madirak, hiztegi aberatsagoa erakutsi zuten. Gainera, aipatzekoa da erabili zituzten hitz berriak haien inguruko euskalkietakoak zirela: *ukan, erreposta, blokatua izan, oino, fitxik, kalakan, aitzinean, arribatu, ahantzi, galdegin, anitz, uros...* Azken datu horrekin, pentsa daiteke beraz, egunerokotasuneko tokian tokiko euskararen kotsumo handiagoak laguntzen duela lexikoa aberasten.

Zalantza lexikalen aurrean parte-hartzaile bat berak ere ez zuen galderarik egin, esan nahi zituzten hitzak nola esaten ziren jakiteko. Parte-hartzaileen kontakizunetan, oro har, ez zen frantsesetik hartutako interferentzia lexikorik ageri, *mais* ‘baina’ juntagailua alde batera utzita (6).

- (6) nahi duzu etorri nirekin?/ a **mais** bai/ zertako ez!/ eta axeria joaiten da pluf/ zaku barnera/ eta joaiten die/ bidean berriz ikusten du otsoa/ eta otsoa pixkat harrtua da ere/ **mais** Mattin Zaku nora zoaz hola eta zer egiten duzu?/e: **mais** nire zakuarekin joaten naiz gaztelura/ nahi nuke diru pittat zenta pobre gira nire amarekin!/ nahi duzu nirekin etorri?/ a **mais** bai!/ zertako ez! (Miaram)

7.3 Izen kohesioa

9 pertsonaia edo objektu nagusi ageri dira Mattin Zakuren ipuinean: pertsonai nagusiak Mattin Zaku eta erregea dira, eta bigarren mailakoak ama, azeria, otsoa, ibaia, morroiak, oiloak eta zaldiak.



4. Irudia: pertsonaien aurkezpen eta deskribapenak (%).

Pertsonaia nagusien kasuan, parte-hartzaile guztiek egin zuten bi pertsonaien aurkezpena (% 100). Mattin Zakuren kasuan, gainera, parte-hartzaile guztiek eman zuten haren inguruko azalpen edo deskribapena. Batez ere pobrea eta txikia izatearen informazioa, (8) edo (9) adibideetan ikusten denez.

- (7) Mattin Zaku badu izena/ egun batez/ bazen famili bat **oso pobrea** zen eta/e: eta **ttikia**/ Mattin/ Mattin Zaku. (Bebera)
- (8) Bon Mattin Zaku zen **mutiko ttiki bat**/ bere amarekin bizi zen/ mutiko txiki horrek eta bere amak/ herri pobre batean bizi ziren/ **ez zuten dirua**/ **pobreak ziren** ere/ eta/ ez ziren/ ez ziren ongi bizitzen herri hortan. (Juzoza)

Erregearen inguruko azalpenak aldiz, gutxiagok eman zituzten (% 66,67). Egin zutenek, aberats izatearen ezaugarria aipatu zuten bereziki (10):

- (9) antza denez bada gaztelu bat/ errege batekin/ **biziki/e: biziki/e: aberatsa dena** (Cetouz)

Gainontzeko pertsonaien kasuan, aldea dago aurkezpena eta deskribapena egiteari dagokionez 4. Irudian ikus daitekeenez. Aurkezpenen kasuan, kontakizun guztietan aurkeztu zituzten ama, azeria, otsoa, morroiak eta oiloak eta gehienetan (% 83,33) ibaia² eta zaldiak.

Deskribapenetan, berriz, aldea dago. Amaren deskribapena parte-hartzaile guztiek egin zuten Mattin Zaku, bere semearekin batera pobreak zirela azalduz. Beste pertsonaiekin, apenas agertu ziren azalpenak, nahiz eta ereduan otsoa, ibaia, oiloak eta zaldiak deskribatu. Miaram parte-hartzaileak (11) ereduan deskribatzen ez zen azeria ere deskribatu egin zuen. Eta beste pertsonaiekin, otsoa, oiloak eta morroiak ez zituen inork deskribatu, eta ibaia eta zaldiak gutxi (% 33,33 eta % 16,67, hurrenez hurren).

(11) Mattin Zaku/ joaiten da eta bidean/ lehen/ hor ikusten duzu/ axeri **ttiki** bat (Miaram)

7.4 Aditz kohesioa eta denboren erabilera.

Aditzaren barnean, denbora ainguraketari dagokionez, 6tik 2k egin zuten: batek *egun batez bazen* testu antolatzailearen bitartez eta besteak *behin bazen* antolatzailearen bitartez (3. Taula). Besteek denbora ainguraketarako testu antolatzaileak erabiltzen ez bazuten ere, 3k lehenaldia erabili zuten hasieratik kontakizunari denbora ezartzerako orduan eta bakarrak orainaldia. Zuzenean lehenaldian edo orainaldian osatutako aditzarekin hasi ziren ipuina kontatzen, denbora ainguraketarako testu antolatzaileak gabe (ikus adibideak 3. Taulan).

3. Taula. denbora ainguraketa eta hausturak.

	Juzoza	Madira	Miguti	Miaram	Bebera	Cetouz
Denbora ainguraketa/ kontakizuneko denbora nagusia	Lehenaldia <i>Mattin Zaku zen mutiko ttiki bat</i>	Lehenaldia Behin bazen mutil polit polit bat	Lehenaldia <i>Mattin Zaku zen muttiko bat</i>	Orainaldia <i>muttil ttiki hori Mattin du izena</i>	Lehenaldia egun batez/ bazen famili bat	Lehenaldia <i>Mattin/ bizi zen</i>
Denbora hausturak	0	5	1	1	14	3

² Istorio honetan, ibaia modu batean pertsonifikatu egiten da edo bizitza ematen zaio eta horrexegatik aipatu da pertsonaia gisara.

Denbora ainguraketa horri edo kontaketakoa aditz denbora nagusiari lotutako denbora hausturez ari naizela, batzaz beste 4 haustura egin zituzten parte-hartzaileek, baina banaketa oso desberdina izan zen parte-hartzaile batetik bestera (3. Taula). Bereziki deigarria da Beberaren kasua, 14 haustura egin baitzituen (12), beste parte-hartzaileek apenas hausturarik egin ez arren. (13) adibidean ikusten denez, beste parte-hartzaileen kasuan, gutxi ziren hausturak, eta batzuetan parte-hartzaileak berak autozuzenketa egin zuen:

(12) ta gero/ bidean ere/ **topatu zuen** otso bat/ ta otsoak **erran dio/ noat zoaz** Mattinek?/ Mattin?/ **banoa** gaztelurat/ dirurik bila/ eta **nahi duzu** nirekin etortzea?/ bai bai/ **sartu** nire zakurat/ **sartu zuen** eta/ **sartu zen** (Bebera)

(13) baina izigarri pobreak **dira/ ziren** (Madira)

Aditz-denborari dagokionez, batzaz beste parte-hartzaile bakoitzak 82,5 aditz erabili zituen bere kontakizunean; horietatik batzaz beste 6,5 (% 8,87) jokatugabeak izan ziren, 36,83 (% 44,64) jokatua lehendian, eta 39,17 (% 47,47) orainaldian. Kontuan izan behar da 6 parte-hartzailetik batek orainaldian kontaktu zuela istorio guztia, eta lehendian kontaktu zutenek ere kontakizuneko elkarrizketa momentuetarako orainaldiadia erabili zutela, lehenago ereduaren entzun bezala. Hori da orainaldiaren batzaz bestekoa altu samarra izatearen arrazoia.

Denbora akatsei erreparatuta, 4,5 denbora urratze egin zituen batzaz beste parte-hartzaile bakoitzak baina banaketa guztiz desorekatuan, izan ere Bebera parte hartzaileak 15 akats egin zituen eta aldiz, Juzoza, Miguti eta Miaramek bakarra edo batere ez. (14) adibidean ikusten da aditz kohesioaren haustura, ez baitzuen erabili aditz denbora jarraitua denbora guztian (*atera zaio/ esan zuen*).

(14) beraz **hartu zuen** bidea/ eta/ **ibiltzen/** zuhaitz gibeletik/ **atera zaio** azeri bat/ eta azeria **esan zuen/** baina nora **zoaz** hain laster? (Miguti)

Aipagarria da, bestalde, kontakizun guztia orainaldian egin zuen parte-hartzailearena. (15) adibidean ikusi daitekeenez, haustura bat egin zuen memento batean lehendia.

(15) orduan morroiak **joaiten da** erregina ikusterat ea **erraten zion/** bon **badugu** hor mutil tiki bat/ zer **egin?**

8. Emaitzen eztabaida eta ondorioak

Lan honetan, frantsesa hizkuntza nagusia duten eta euskaraz ikasten ari diren hiztun helduen gaitasun diskurtsibo eta linguistikoak aztertu dira testu-generoen ikuspegitik egindako ikerketa enpiriko batean oinarrituta. Hala, haur euskaldunen garapenean ipuin kontaketa aztertu duten zenbait lanetatik abiatuz (ikus 4. atala), eta horietan datuak biltzeko erabilitako dispositibo metodologikoa erabilia oro har, jabeakuntza adin berantiarra goa duten eta adinez helduagoak diren hiztunengan gaitasun diskurtsibo eta linguistikoak antzekoak diren aztertu dut. Zehazki euskara-frantsesa elebidunak diren 6 partaideren euskarazko ahozko narrazioak bildu eta aztertu ditut lan honetan.

Batetik, testu-generoaren egiturari dagokionez, nire aurreikuspena zen parte hartzaileek nahiko istorio osatuak eta egituratuak ekoitziko zituztela, autonomia narratibo erabatekoarekin eta egitura narratibo osatuekin, horretarako testu antolatzaile eta artxikonektore zenbaiten erabileraz baliatuz. Oro har, emaitzek bat egin dute aurreikusitakoarekin. Autonomia osoa erakutsi zuten parte hartzaile guztiek eta testu antolatzaile ugari ere erabili zituzten artxikonektoreez gainera testuko loturak egoki eginez.

Manterolak (2012) aipatu bezala, kontaketarako autonomia oso lotuta egoten da kontaketa jarduera motei. Hori horrela dela ikusi da azterketa honetan ere bi arrazoi hauengatik: batetik, hurrekin gertatu bezala, hemen ere jarduera birkontaketa batean oinarritu delako, eta aurrekarietan ikusi bezala, birkontaketa jardueretan autonomia lehenago lortzen delako. Bestetik, parte hartzaileek kontaketarako autonomia beraien H1 hizkuntzan bereganatua izanda, suposatzen da heldu hauek H1ean duten ezagutza hori erraz asko transferi lezaketela euskarara.

Gutxienekoa izanagatik ere, parte hartzaile batek zenbait huts egin zituen egituran, espero genuenaren kontra istorioaren zatiak desordenatuta eta kontatu gabe utzi baitzituen. Pentsa daiteke egin beharreko ariketak berak eragin lezakeen urduritasun mailarekin lotuta egotea.

Eta testu antolatzaileen erabilerari dagokionez, aurreikuspenetan uste bezala, testu antolatzaile ugari erabili dituzte artxikonektoreez gainera, baina banaketa oso desorekatuan. Gaur egun euskararekin harreman zuzenagoa dutenek erabili zituzten antolatzaile gehiago.

Hiztegiaren erabileraz ari garela, euskarazko hiztegi aberatsa espero zen eta frantseseko zenbait hitzen agerpena ere aurreikusi genuen. Hala ere, emaitzak bestelakoak izan dira gehienetan. Alde batetik, ez da apenas frantseseko hitzik agertu, nahiz eta Almgren eta Manterolak (2016, 35. or.) esan “Hizkuntza batetik besterako elementu lexikalen transferentzia, fenomeno normala da Komunitate elebidunetan”.

Halakoa ez agertzearen arrazoia, eta beraz, haurren ipuin-kontaktetikiko aldea, egoerari lotuta egon daitekeela uste dut. Ariketa eukaltegian bertan burutua izan da eta bertan ikasleek ahal dutelarik %100an euskara erabiltzeko egiten duten saiakerak eragina izan lezake.

Aldiz, hiztegi aberastasunari erreparatuta, aurreikuspenak bete dira; ingurune euskaldunagoa duten 3 parte hartzaileek nahikotxo erabili dituzte ereduari ageri ez ziren hitz berriak, eta hala agerian utzi dute haien hiztegi aberastasuna, eta ereduari eman ez zaizkien hitzak erabiltzeko gaitasuna. Horrekin beraz, ondorioztatu daiteke, hizkuntzaren erabilera ugariagoak edota jabe hizkuntza kontsumoak laguntzen duela hizkuntzaren jabe kintzan, Almgren eta Manterolak (2016) haurretan murgiltze ereduak eragina duela aipatzen duten bezala.

Izen kohesioaren ereduaren antzerako azalpenak aurreikusi nituen; pertsonaia guztien agerpena emateaz gainera, ereduari pertsonaien inguruan emandako azalpen eta deskribapenak azalduko zirela uste zen. Alabaina, pertsonaia guztien agerpena ez da agertu partze hartzaile guztiengan, bi pertsonaia falta baitziren narrazio batean. Deskribapenetan, ere Mattin Zaku eta amaren deskribapenak ikasle guztiek egin bazituzten ere, beste pertsonaien aurkezpenak ez ziren kontakizun guztietan ageri. Gehiago esanda, bi pertsonaia ikasle bat berak ere ez zituen deskribatu.

Alderdi honetan beraz, ikusi da Manterolak (2012) bere lanean 5 urteko haurrekin aurkitutako emaitzetan bezala, pertsonaien agerpen eta azalpenak nahiko ahulak direla. Hortaz, HEOCek zehaztutako gaitasunen artean, pentsa daiteke izen kohesioa bereganatzen gehiago kostatzen den alderdia dela, eta hortaz, helduen euskalduntze prozesuetan ere kontuan hartu beharreko irakaskuntza objektua izan daitekeela.

Eta azkenik, aditz kohesioan, kontaketa iraganean ainguratuko zutela eta denbora hausturaren bat ematekotan oso gutxi izango zirela aurreikusten zen, eta hor ere ez dira erabat bete aurreikuspenak. Parte hartzaileen % 33,33ak soilik egin zuen denbora

ainguraketa testu antolatzaile baten bitartez, eta kontakizunerako aditz denbora nagusia gehienena iragana izan bazen ere, parte hartzaile batek orainaldian egin zuen kontaketa nagusia. Bestalde, kontaketa elkarrizketa zatiez gain, kontakizuneko beste ataletan ere egin zituzten denbora aldaketak, zenbaitetan istorioko denboran haustura ugari eginez. Aditz denborei dagokionez, beraz, esperotakoa baina akats gehiago egin zituztela ikusi da, batez ere euskara beranduago bereganatzen hasi ziren ikasle horietan. Manterolaren (2015) laneko emaitzekin alderaketa bat egin daiteke. Lan horretan ere, 5 urteko haurretan alde nabarmena zegoen H1 eta H2 goiztiarren artean, H2 goiztiarren multzoan gutxiak lortzen baitzuten denbora hausturarik ez egitea. Beraz euskaraz lehenago jabetzen hasten diren horiek hausturarik ez egiteko gaitasun gehiago dutela ondoriozta daiteke.

HEOCen B2 maila amaierarako ia aditz denbora eta marka guztiak erabiltzeko gaitasuna eskuratu beharko luketela zehazten da, baina lan honetan ikusi da ikasle gehienek zailtasunak dituztela lehenaldiko denborari eusteko, H2 goiztiarra duten haurren antzera. Hortaz, hemen ere agian pentsa daiteke, bigarren hizkuntzaren garapen prozesuan bereganatzen kostatzen den alderdia dela aditz denborei zehaztapena eta horiek zuzen erabiltzeko gaitasuna. Horrela bada, B2 mailan gehiago lantzea komeni litekeela ondoriozta daiteke.

Bestalde, parte-hartzaileen arteko alderaketak erakutsi du bereziki istorioa lotzeko erabilitako loturetan eta aditz kohesioan aldea dagoela txikitatik H1 frantsesa soilik dutenen (eta, beraz, euskara H2 berantiarra) eta euskara ere badutenen eta euskara gehiago erabiltzen dutenen artean. Beraz, literaturako emaitzekin bat etorrira (Manterola, Almgren & Idiazabal, 2013; Lascano & Manterola, argitaratzeak...) ikusi da alderik handienak gehienbat alderdi linguistikoetan, eta zehatzagoa izateko aditzari eta denborari lotutako alderdietan ageri direla, eta aldiz, lan honetan erakutsitako aurrekari eta egindako azterketa txikiak erakutsi dute, batez ere gaitasun diskurtsiboak errazago garatzen dituela H2ko hiztunak transferitzen errazagoak direlako (Manterola, Almgren & Idiazabal, 2013).

Lan enpiriko txiki honekin nola edo hala hasiera ematen zaio ipuin kontaketa oinarri hartuta euskara ikasten diharduten helduen hizkuntza jabetzaren garapenaren azterketari. Zalantzarik gabe, corpus txikia da bildu dudana, eta elebitasun profilei dagokienez, espero nuena baino anitzagoa, hortaz, lagina handitzea komeniko litzateke hemen aurkitu diren emaitzak zenbateraino orokortzen diren jakiteko. Bestalde, zenbait

alderi aztertu gabe gelditu dira, eta lan honetako emaitzak kontuan hartuta, interesgarri izango litzake batez ere gramatika arloko beste zenbait alderdiri erreparatuko dioten azterketak egitea, horietan ikusi baita ahultasun handiena. Horrez gain, lagin berarekin beste testu-genero bat aztertzea ere interesgarria izan liteke; hartara, lan honetan testu generoari lotuta zeudela uste izan dudan ondorioak baieztatu edo ezeztatzen ahalko ziren.

Amaitzeko, lan honek aukera eman du identifikatzeko euskaltegi-tako B2 mailan diren ikasleek ahozkoan dituzten trebetasun eta ahulgune-tako batzuk. Hala, oinarri empiriko eskaintzen du B2 mailan hobetzeko dauden alderdi horietan lanketa sakonagoak egiteari ekiteko.

9. Erreferentziak

Almgren, M. & Manterola, I. (2016). The development of narrative skills in learners of Basque as a second language. *Education Inquiry*, 7(1), (27.-46. or.) 27627, DOI: 10.3402/edui.v7.27627

Almgren, M. & Manterola, I. (2013). Las grandes líneas de progresión de los aprendizajes lingüísticos en la escolarización en euskera. In J. Dolz & I. Idiazabal (Eds.), *Enseñar (lenguas) en contextos multilingües* (217.-240. or.). UPV/EHU. ISBN: 978-84-9860-838-0

Almgren, M., Idiazabal, I. & Manterola, I. (2013). Basque L2 development in immersion school settings. *International Journal of Bilingualism*, 17(3), (375.-391. or.) DOI: 10.1177/1367006912438996

Clahsen, H., & Felser, C. (2006). How native-like is non-native language processing?. *Trends in cognitive sciences*, 10 (12), (564-570. or.)

Eusko Jaurlaritza (2016). *Euskal Herriko VI. inkesta soziolinguistikoaren emaitzen sintesia*.

Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu & Euskararen Erakunde Publikoa (2016). *Ipar Euskal Herriko gogoetak : euskara berrabiatzearen bidean*.

HABE (2015). *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC)*. Donostia: HABE. ISBN: 978-84-96769-05-2

- Klusterra, S. (2017). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria 2016*.
- Lascano, B. & Manterola, I. (argitaratzeko). Mattin Zaku eta Centellita/Étincelle: D ereduko haurren garapen elebiduna aztergai. In Diaz de Gereñu, L., Manterola, I. & Garcia-Azkoaga, I. (Arg.). *Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu*. (161.-177. or.) Bilbo: UPV/EHU-UEU.
- Manterola, I. (2010). *Euskarazko murgilketa haur hezkuntzan: euskara-gaztelania elebitasunaren azterketa. Ahozko ipuinen analisi diskurtsiboa eta didaktikoa*. Doktorego tesia, UPV/EHU.
- Manterola, I. (2012). Diskurtso gaitasunen jabekuntza euskara H2 duten haurrengan: ipuin-kontaktak aztergai. In Mendebalde Kultura Alkartea, *Hizkuntzaz jabetzen (0-6) XVI. Jardunaldiak* (109.-157. or.) ISBN: 978-84-15508-08-3
- Manterola, I. (2015). Gaztelania H1 eta H2ren garapena 5 eta 8 urte artean: ipuinetako aditz kohesioa aztergai. In M.J. Ezeizabarrena & R. Gomez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta. Sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008)*. (419.-435. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- Meisel, J. M. (2013). Remarks on the acquisition of Basque–Spanish bilingualism. *International Journal Of Bilingualism*, 17(3), (392-399. or.)

10.Eranskinak

1. ERANSKINA

PARTE HARTZAILEEK BETE BEHARREKO GALDETEGIA

ELEBITASUN GALDETEGIA

Proiektuaren burua: Amaia Munarriz Ibarrola

Ikasle-ikertzailea: Amaia Irastorza Adin
--

Kodea (ikertzaileak betetzeko):

Gaurko data (ikertzaileak betetzeko):

- **Lehen atala**

- Izen-abizenak:
- Sexua:
- Jaiotza-data:
- Posta elektronikoa:
- NAN a edo baliokidea:
- Telefonoa:
- Sorlekua (herria eta probintzia):
- Bizilekua (herria eta probintzia):
- Ikasketak edo lanbidea:

- **Bigarren atala:**

1. Zure etxeko hizkuntza(k):

- 1. gurasoa:
- 2. gurasoa:
- Inguruko besteak (neba-arrebak, zaintzailea...):

2. Zenbat urterekin hasi zinen euskara ikasten?

- Bi urte aurretik -Ama eskolan (3-6 urte) Lehen hezkuntzan (6-12 urte)
 Bigarren hezkuntzan (12-16 urte) Heldutan (> 16 urte)

3. Non hasi zinen euskara ikasten?

- Etxean Kalean Euskaltegian Eskolan Bestela (zehaztu)_

4. Zein maiztasunez entzun edo irakurtzen zenuen euskaraz (musika, aldizkariak, irratia, etab.) euskaraz ikasten hasi aitzin?

- Egunero Astean behin Hilabetean behin Urtean behin Inoiz

5. Zein maiztasunez entzun edo irakurtzen duzu euskaraz (musika, aldizkariak, irratia, etab.) orain?

Egunero Astean behin Hilabetean behin Urtean behin Inoiz

6. Zein hizkuntzatan aritzen zara behean adierazten den egoera bakoitzean? (X markatu)

	Frantsesez bakarrik	Frantsesez gehienetan	Frantsesez eta euskaraz antzera	Euskaraz gehienetan	Euskaraz bakarrik
Etxean					
Ikasketetan/lanean					
Besteetan (lagunekin, kalean, aisialdian)					

2. ERANSKINA

MATTIN ZAKUREN IPUINA - IRUDIAK



MATTIN ZAKU, PARTE HARTZAILEEN AHOZKO KONTAKIZUNAK
(IRAKASLEAREN EREDUA BARNE)

MATTIN ZAKU (irakaslearen ahozko bertsioa)

Data: 2021-04-06

Ipuin kontalaria: “AMIRAS” (irakaslea)

Egoera: AMIRAS irakasleak Mattin Zaku ipuina kontatzen die “BEBERA”, “CETOUZ”, “JUZOZA”, “MADIRA”, “MIGUTI” eta “MIARAM” ikasleei, marrazkiak erakutsiz.

Iraupena: 6’ 20’’

- 1 1. Bazen behin Mattin Zaku izeneko mutiko bat / herri txiro batean bizi zena / pobre
2 batean bizi zena / eta amarekin bizi zen baserrian eta oso pobreak ziren bai? / egun
3 batean halaxe esan zion amari / ama / jakin dut hemendik ez oso urrun / bai? / gaztelu
4 bat badela eta handi handia da / eta bertako erregeak diru asko omen du / pentsatu dut
5 harea joango naizela eta erregeari dirua eskatuko diodala gu hobekio bizitzeko /
6 hurrengo goizean bertan / abiatu zen Mattin Zaku bai? / bere zakua bizkar gainean
7 hartuta / eta goiz osoan ibil eta gero bat batean / azeri bat azaldu zitzaion bide
8 bazterrean / eta azeriak galdetu zion / nora zoaz Mattin Zaku? / eta Mattin Zakuk
9 erantzun zion / errege aberatsaren etxera noa / jakin dut baduela diru asko / eta diru bila
10 / diru eske noa / nahi al duzu nirekin etorri? / eta azeriak erantzun zion / bai horixe / eta
11 orduan pluf / Mattin Zakuren zakuan sartu eta berarekin joan zen / bazihoazen basoan
12 barrena / eta handik gutxira otso handi batekin egin zuten topo / eta galdetu zion otsoak
13 / Mattin zaku / nora zoaz? / eta Mattin Zakuk erantzun zion / errege aberatsaren
14 gaztelura noa diru bila / nahi al duzu nirekin etorri? / eta otsoak erantzun zion / bai
15 horixe / eta pluf / Mattin Zakuren zakuan sartu zen eta han joan ziren / bidean aurrera
16 egin zen Mattin Zakuk / baina halako batean / ibai handi eta sakon baten aurrean aurkitu
17 zen / eta bah / pentsatu zuen / orain ezin dut deus egin / baina buruari bueltak eman / eta
18 pentsatu zuen / ibaia ere zakuan sartuko dut / eta hala / ibaia zeharkatzen ahalko dut /
19 eta pluf / ibaia ere zakuan sartu zuen / hara beraz / iritsi zen halako batean gaztelura / eta
20 / hango morroiekin egin zuen topo atean / morroiek galdetu zioten / aizu ume / zu nora
21 zoaz? / eta Mattin Zakuk esan zien ba erregearengana joan nahi zuela dirua eskatzera /
22 morroiek ez zioten kasurik egin / eta han utzi zuten atean / eta Mattin Zakuk berriro ere
23 / pum pum pum ... gazteluko atea jo zuen / berriro azaldu ziren morroiak eta esan zuten

24 / zer nahi duzu? / dirua nahi dut / erregeak diru asko du eta dirua nahi dut / joan ziren
25 erregearengana / morroiak / eta esan zioten / hemen bada ume bat diru eske datorrena /
26 eta erregeak esan zien / hemen alferrentzat ez da dirurik / hartu ezazue / eta eraman
27 ezazue oilategira / hango oilo handiek jan dezaten / giltzapean hartu zuten / eta / han
28 eraman zuten oilategira / oilategian utzi zuten bezain laster / Mattin Zakuk / zaku
29 barruan zegoen azeriari esan zion / azeri azeri / atera zaitez zakutik! / atera zen azeria
30 eta kris- karus jan zituen oilo guztiak / hurrengo goizean morroiak azaldu zirenean /
31 harrituta gelditu ziren / esan zuten / ez da posible / haur honek oilo guztiak jan ditu / eta
32 erregearengana eraman zuten / aizu errege / ume honek oilo guztiak jan ditu / eta ez
33 dakigu zer egin! / eta orduan erregeak esan zuen / har ezazue eta eraman ezazue
34 zalditegira hango zaldi basatiek jango dute eta! / sartu zuten Mattin Zaku zalditegian /
35 eta itxi zutenean / esan zion zakuan zuen otsoari / otso- otso / atera zaitez zakutik! /
36 atera zen otsoa zakutik eta kris- kraus jan zituen zaldi guztiak / hurrengo egunean
37 erregearen morroiak azaldu zirenean / harrituta gelditu ziren / zer pasatzen da hemen? /
38 ume honek denak jaten ditu / zaldiak ere / denak akabatu ditu! / orduan erregeak
39 pentsatu zuen / ba erre egingo dugu! / orduan hartu zuten Mattin Zaku eta lasto gainean
40 ipini zuten egur bati lotuta herriko plazan / hasi ziren sua ematen lasto pilari / eta orduan
41 Mattin Zakuk / esan zion zakuan zegoen ibaiari / atera atera! / eta zakutik ibaia atera
42 zuen eta su guztia itzali / hasi zen gaztelua urez betetzen / urez betetzen / eta / esan zuen
43 erregeak / etsiturik / ez dakit zer egin! / eta orduan galdetu zion Mattin Zakuri / ea ume /
44 ea Mattin Zaku / zer da nahi duzuna? / eta orduan esan zion Mattin Zakuk / zakua bete
45 diru / zakua bete diru / orduan erregeak amore eman / eta gazteluan zegoen diru guztia
46 bildu zuen Mattin Zakuri emateko / eman zion Mattin Zakuri diru guztia / eta Mattin
47 Zaku amarengana itzuli zen / eta betirako poz- pozik eta aberats bizi izan ziren / eta hala
48 bazan edo ez bazan / sar dadila kalabazan / eta atera dadila / Donibaneko plazan.

1- "BEBERA"

Donibane Lohizune, 2021-04-06

Ipuin kontalaria: "AMIRAS" (irakaslea)

Egoera: "AMIRAS" irakasleak Mattin Zaku ipuina kontatu ondoren, "BEBERA" ikasleak ipuina kontatzen dio "MIARAM" ikasleari, marrazkien laguntzarekin.

Iraupena: 7' 20"

- 1 1. Arratsalde on / kontatuko dizut orain / ipuin bat / Mattin Zaku badu izena / egun
- 2 batez / bazen famili bat oso pobrea zen eta /e: eta ttikia / Mattin / Mattin Zaku /
- 3 erran dio amari / galdetu du / galdetu diot gazteluaren erregeari dirua / orduan
- 4 biharramunean / goiz goizean / bazen bidean eta / bidean / topatu zuen axeri bat eta
- 5 axeri / erran dio / noat / nora zoaz? / Mattin / banoa gaztelurat / diru / diru bila /
- 6 dirurik bila! / nahi duzu nirekin etortzerat? / bai / zergaitik ez? / sartu nire zakuara
- 7 (4'') ta gero / bidean ere / topatu zuen otso bat / ta otsoak erran dio / noat zoaz
- 8 Mattinek? / Mattin? / banoa gaztelurat / dirurik bila / eta nahi duzu nirekin etortzea?
- 9 / bai bai / sartu nire zakurat / sartu zuen eta / sartu zen eta / gero / joan zen
- 10 gaztelurat / baina bat batean bazen ibai / ibai bat eta nola pasatuko naiz? / eta bon /
- 11 galdetu diot / galdetu dio ibaiari / sartu nire zakurat! / sartu zuen / sartu zen / orduan
- 12 joan zen / joan zen gaztelura / eta ate / atean / tok tok tok / morroi bat etorri zen / eta
- 13 / galdetu dio? / nahi nuke dirurik! / galdetzen ahal duzu / diozu erregeari? / fite itxi
- 14 zen / itxi zuen atea / eta berritz / tok tok tok / nahi nuke dirurik! / orduan morroiak
- 15 galdetu / galdetu dio erregeari / bada mutil bat / nahi du / nahi du dirudik / ez da
- 16 dirurik alferrarentzat! / eman oilotegirat / eman (x4) du oilotegirat / eta / zakutik
- 17 galdetu dio axeri / axeriri / atera eta jan / jan oilo guztiak! / oilo guztiak jan ditu / eta
- 18 bon / morroiak etortzen / etortzen da eta / harritua / erran dio erregeari / jan du / jan
- 19 ditu oilo guztiak! / zer da hori? / eman zalditegirat! / zalditegirat berritz / erran /
- 20 galdetu / galdetu zion otsoari / atera eta zaldiak / zaldi guztiak jan! / orduan otsoak
- 21 jan ditu zaldiak / eta / orduan morroiak harritua / eta / erregaek / erran du / bon eman
- 22 egurra / eta Mattin / Mattin gainean / eta / tu tu tu (5'') erre / erre zaitetz! / orduan
- 23 Mattinek galdetu zion ibaiari / atera eta itzali sua! / itzali zuen sua / eta ere ura joan
- 24 zen gaztelurat / eta erregaek / pixkat bel / errega pixkat beldur zen eta galdetu zion
- 25 / Mattinari / Mattineri / ze nahi duzu? / ni nahi dut dirurik! / eta zaku bete bete! /

26 orduan joan zen gaztelu / gaztelu osoan / eta diru / diru asko hartu zuen / eta eman
27 dio Mattineri / Mattin / Mattinek / Mattin sartu zen / sartu zen etxerat eta poz pozik
28 bizi zen bere amarekin.

2- “CETOUZ”

Donibane Lohizune, 2021-04-06

Ipuin kontalaria: “AMIRAS” (irakaslea)

Egoera: AMIRAS irakasleak Mattin Zaku ipuina kontatu ondoren, “CETOUZ” ikasleak ipuina kontatzen dio “MIGUTI” ikasleari, marrazkien laguntzarekin.

Iraupena: 6’ 5’’

- 1 1. Miren / begira / kontatuko dizuet ixtorioa / Mattin Saku / begira / Mattin Saku / hor
- 2 da Mattin / bizi zen bere amarekin /e: biziki pobreak ziren / begira bere etxea / eta /
- 3 erran zion bere amari / ama / beharba ez dakit badakizun baina antza denez bada
- 4 gaztelu bat / errege batekin / biziki /e: biziki /e: aberatsa dena / eta beharba /
- 5 eskatuko dugu dirua / zer pentsa / zer uste duzu? / beraz / Mattin / Saku / Mattin
- 6 Sakuk / hartu / hartu zuen zaku bat / joateko gaztelura / eta / bidean / topatu zuen /
- 7 azer / azzeria ? / azeria / azeria / eta / erran zion / egunon! / azeria / azeriak erran
- 8 zion / egunon zer egiten ari zara? / be joanen naiz gaztelura /e: eska /e: dirua
- 9 hartzeko /e: nirekin /e: nirekin joan nahi duzu? / bai zergatik ez? / eta elkarrekin
- 10 gaztelura joanen dira / eta zelaiz batean / otso bat / topatu zuen / eta berdin / erran
- 11 zion /e: otsoak erran zion /e: Mattineri /e: zer egiten ari zara? / Mattineri /e:
- 12 Mattinek erran zion / be joanen naiz gaztelura / dirua hartzeko / nirekin zat / joan
- 13 nahi duzu? / Bai zergaitik ez! / eta azeria bezala / otsoa sakuan sartu zen / hau
- 14 barkatu zenta azeria sartu zen sakuan / eta momentu batean /e: ibaia batean / baten
- 15 ondoan / ikusi zuen / Mattinek ikusi zuen / gaztelua / baina sartzeko ez / ez zen
- 16 posible / ura / uragatik / beraz erran / erran zion urari / sartu zuen nire sakuan / eta
- 17 ura / ibaia / sartu zuen / sartu zen / sakuan (4’’) topatu zuen erregea / baina erregea
- 18 ez du nahi hitz egin /e: Mattinekin / beraz erran / erran zion bere buruari / bere
- 19 morroiari / hartu / hartu mutil hori eta /e: joan / eta / atxilotuko / atxila / atxilotuko
- 20 duzu /e: oilo / oilategian / oilategian Mattin pentsatu zuen / zer egin / a mais bai! /
- 21 bada azeria nire sakuan / eta azeriak /e: jan zuen / jan zituen oiloak / morroiek erran
- 22 zuten erregeari / Mattin / bai Mattin / Mattinek /e: jan zuen oiloak! / eta erregeak /
- 23 erran zuen / atxilotuko duzue Mattin zalditegian / eta zalditegian / bere / Mattinaren
- 24 sakuatik otsoa atera zuen / atera zen / eta jan zituen / zaldiak / beraz / erregeak erretu
- 25 nahi du Mattin / baina Mattin / atera zuen bere sakua eta ibaia atera zen (5’’) erregea

- 26 beldur / beldurtu zen / eta adostu zuen dirua emateko Mattinari / beraz / bere
27 sakuarekin dirua bete / betea /e: Mattin itzuli / itzuli zen bere /e: bere etxera bere
28 amarekin / eta bukatu da.

3- “JUZOZA”

Donibane Lohizune, 2021-04-06

Ipuin kontalaria: “AMIRAS” (irakaslea)

Egoera: “AMIRAS” irakasleak Mattin Zaku ipuina kontatu ondoren, “JUZOZA” ikasleak ipuina kontatzen dio “MADIRA” ikasleari, marrazkien laguntzarekin.

Iraupena: 6’ 30”

- 1 1. Egunon / orduan kontatuko zaitut Mattin Zakuaren / Mattin Zakuren istorioa /
- 2 ezagutzen duzu Mattin Zaku? /
- 3 2. Ez batere
- 4 3. Bon Mattin Zaku zen mutiko ttiki bat / bere amarekin bizi zen / mutiko txiki horrek
- 5 eta bere amak / herri pobre batean bizi ziren / ez zuten dirua / pobreak ziren ere / eta
- 6 / ez ziren / ez ziren ongi bizitzen herri hortan / orduan / Mattin Zakuk / idei / ideia
- 7 bat ukan zuen / nahi / jakin zuen /e: bere etxearen ondoan gaztelu bat bazela / eta
- 8 gaztelu honetan errege bat diru anitz ainitza bazuen / eta bere ideia ukan zuen / zen /
- 9 gaztelu hortan joatea / eta diru hartzea / orduan / biharamunean / bere ideia hartu
- 10 zuen eta joan zen gazteluaren / gazteluarengana / eta bidean / ibiltzen zen bidean
- 11 Mattin Zaku / eta bidean / ikusi zuen azerri bat / eta azerri horrek erran zion / Mattin
- 12 Zaku nora zoaz? / nora zoaz? / eta Mattin Zakuk erreposta eman zion / banoa
- 13 gaztelura / dirua hartzera erregeari! / eta galdetu zion / nahi duzu nirekin etorri? / eta
- 14 azerriak erran zion / a bai! / eta Mattin Zakuaren zakuan joan zen / segitzen zuen eta
- 15 bidean otso bat ikusi zuten / eta otsoan galdetu Mattin Zakuri / Mattin Zaku nora
- 16 zoaz? / eta Mattin Zakuk erran / joaten naiz gaztelura / dirua galdetzera erregeari /
- 17 eta galdetu zion / Mattin Zakuk galdetu zion otsoari / nahi duzu gurekin etorri? / eta
- 18 otsoak erran zion / ah bai! / eta aupa / bere / Mattin Zakurekin joan zen zakuan / eta
- 19 geroxo bidean / blokatuak izan ziren bidean zenta bazen ibai handi bat / eta ez zuten
- 20 pasatzen ahal bidean / orduan Mattin Zakuk ideia ukan zuen / ur guztia bere zakuan
- 21 ematea / otsoa eta azerriarekin / orduan puf / hartu zuen ur guztia eta bere zakua ur
- 22 betetu zuen / eta hola / segitzen ahal zuen bidea gaztelura joateko / baina gazteluan
- 23 etortzean / baziren morroiak aitzinean / eta / galdetu zuen / gaztelura etorri naiz
- 24 erregeari dirua galdetzeko nire amarentzat / baina morroiak ez zuten entzun eta joan
- 25 ziren / eta orduan berritz / (mahaian jotzen du) erran zuen / gaztelura etorri naiz

26 dirua eskatzeko / orduan morroiak joan ziren erregea ikustera eta erran zuten / ez dut
27 lana / ez dut dirua mutiko alferrentzat / emazute oilotegian / orduan morroiak hartu
28 zuten Mattin Zaku finki eta oilotegian eman zuten / baina Mattin Zaku gauaz egon
29 zen oilotegian / baina morroiak ez zekiten / bazuen azerria zakuan / eta Mattin
30 Zakuk / ireki zuen bere / bere zakua eta / krak krak / oiloak jan zituzten azeriek /
31 orduan biharamunean / etorri / biharamunean morroiak /e: morroiak /e: erregeari
32 joan ziren ikusterat eta erran zioten / ba ez dugu ulertu! / ez dira oiloak eta oilo
33 guztiak jan ditu! / orduan erregeak pentsatu zuen eta / bon / badira han zaldi / zaldi
34 basak eta / eman zaldiekin eta zaldiak segur segur janen dute Mattin hori! / orduan
35 gaua pasatu zuen / ikusten / zaldiekin eta / baina ez zekiten morroiak / bazuen ere
36 otso bat bere zakuan / eta / ideki zuen / eta jau! / otsoak zaldi guztiak jan zituzten! /
37 zituen barkatu / orduan oinon etorri ziren morroiak biharamunean eta bah! / ez dugu
38 ulertu / orain zaldi guztiak jan ditu haur txiki horrek / eta erregeak pentsatu pentsatu
39 eta hor segur! / pentsatu zuen sua ematen baldin badugu / ez da bizitzen ahalko / ez
40 da posible! / orduan eman zuten egur pila pila bat / eta erran zuten / hori erretzean ez
41 da biziko gehiago! / eta eman zuten sua baina / orroitzen zira? / Mattin Zakuk ura
42 bazuen bere zakuan / orduan / ideki zuen bere zakua eta / puffff / ur guztia / ur
43 guztia / eta gaztelua urez betetzen / eta erregea beldurtzen / beldurtzen / ez zuen
44 ulertzen / eta begira! / sua guztia itxali / itzali baina / erregeak beldur ukan eta erran
45 zion / zer nahi duzu Mattin Zaku? / zer nahi duzu? / eta Mattin Zakuk erran zion /
46 nik nahi nuke bakarrik nire zakua betetu otoi / nire amarentzat ekartzeko dirua / eta /
47 erregeak diru guzti guzti guztia hartu zuen / diru / diru bazuen guztia hartu zuen eta /
48 Mattin Zakuari eman / eman zion eta Mattin Zaku bere otso azerri eta urarekin sartu
49 zen / denak eman bidean / denak bere etxean sartu / eta gero / Mattin Zaku bere
50 etxean ere sartu zen / eta hor amarekin ez / amari erran zion / ama ongi biziko gira
51 orain / badut dirua / eta gero / gero berrogei / berrogeita hamar urte bizi zen Mattin
52 Zaku eta aberatsa izan ziren eta ongi bizi ziren.

4- “MADIRA”

Donibane Lohizune, 2021-04-06

Ipuin kontalaria: “AMIRAS” (irakaslea)

Egoera: “AMIRAS” irakasleak Mattin Zaku ipuina kontatu ondoren, “MADIRA” ikasleak ipuina kontatzen dio “JUZOZA” ikasleari, marrazkien laguntzarekin.

Iraupena: 4’ 40”

- 1 1. Behin bazen mutil polit polit bat Mattin Zaku deitzen zen / bizi zen bere amarekin /
2 oso (?) bere amarekin baina izigarri pobreak dira / ziren / ez zuten fitxik bizitzeko /
3 eta horregatik oso triste zen / beraz nahi zuen atxeman ideia bat hobetzeko bere bizia
4 amarekin / eta jakin zuen / bazela gaztelu bat bere etxean ondoan / eta pentsatu zuen
5 beharbada joaitea gaztelu hortan eta galdetzea dirua / bera / goiz batez / hartu zuen
6 bere zakua / eta hartu zuen gazteluko bidea / eta hor bidean / atxeman zuen axerri
7 bat / hasi ziren kalakan elgarrekin / eta / axerriak nahi zuen segitu bidea Mattin
8 Zakuarekin / eta sartu zen bere zakuan / eta / segitzen zuten beraz bidea / Mattin
9 Zakua eta axeriarekin / eta bat-batean blokatuak izan dira / izan ziren /e: putzu
10 baten aitzinean / eta hor / ez zuten aitzinatzen ahal / bera Mattin Zakuak sartu zuen
11 axerriarekin ur guztia bere zakuan / eta hor / arribatzen dira / gazteluaren aitzinean /
12 eta hor ikusten dituzte morroiak / gazteluko morroiak / egunon! / nahi nuke
13 gazteluko erregea ikusi / zenta ni bizi naiz nire amarekin ta oso pobreak gira / ta
14 nahi nuke diru pixka bat hobetzeko nire bizia / eta morroiak joan dira ikustera /e:
15 joan dira ikusterat /e: erregea / erranez bazela mutiko ttiki bat /e: eta muttiko hori
16 nahi zuela dirua / eta hori aitzin barkatu / ahantzi dut zerbait inportantea / ikusi
17 zuten ere otso bat bidean / eta otso hori sartu zen bere zakuan ere / eta bon / erregea
18 ez zen ados horrekin / ez ez ez / nahi baduzu dirua / nik mutiko alferrak ez ditut
19 maite / nahi badu dirua lan behar du egin / beraz / behar duzue eraman muttiko ttiki
20 hori oilotegiara / beraz Mattin Zakua sartu zen oilotegian / eta hor baziren oilo
21 pilaka / eta hor axerria gose zen / beraz zakutik ateratu da eta jan ditu oilo guztiak /
22 beraz morroiak goizean ikusi zuten beraz Mattin Zakua oilotegian / eta oiloak den
23 denak jan ziren / joan ziren ikustera erregea / erranez / ez dut ulertzen / Mattin
24 Zakuak jan ditu oilo guztiak / bon bon / mais behar dugu / behar dugu erre muttiko
25 hori / beraz /e: beraz Mattin Zakua beraz / atxikitu / barkatu /e: beraz / eman zuten

26 sua erretzeko Mattin Zakua / eta / hor ohartu / oroitu zen bazuela ura zakuan / beraz
27 ateratu zuen ur guztia / eta / horri esker /e: zapatu zuten sua guztia (6'') beraz
28 erregek erran zuen / bon zer nahi duzu Mattin Zakua? / erregeak galdegin zuen
29 bukaeran muttiko txikiari / nik nahi dut dirua bakarrik / bizitzeko nire amarekin! /
30 ados! / erregeak bukaeran ados izan zen betetzeko bere zakua / eta Matxin Zakua
31 sartu zen bere etxean diru anitzekin / eta geroztik izigarri uros bizi da amarekin.

5- "MIGUTI"

Donibane Lohizune, 2021-04-06

Ipuin kontalaria: "AMIRAS" (irakaslea)

Egoera: "AMIRAS" irakasleak Mattin Zaku ipuina kontatu ondoren, "MIGUTI" ikasleak ipuina kontatzen dio "CETOUZ" ikasleari, marrazkien laguntzarekin.

Iraupena: 4' 55'

- 1 1. Kontatuko dizut Mattin Zakuren ipuina / Mattin Zaku zen muttiko bat / bizi zen baserri
2 batean eta bere amakin / eta oso pobreak ziren / baina pentsatzen zuen / beti ikusten
3 zuen gaztelu bat eta / bazakien / errege bat oso aberatsa bazela han / ordun esan zuen
4 bere amari / joanen naiz dirua eskatzera / beraz hartu zuen bidea / eta / ibiltzen / zuhaitz
5 gibeletik / atera zaio azeri bat / eta azeria esan zuen / baina nora zoaz hain laster? / ba
6 banoa gaztelura / han erregeari galdetuko diot dirua / nahi duzu etorri nirekin? / ba /
7 etorriko naiz / orduan / azeria zakuan sartu zen / eta segitu / Martin Zaku segitu zuen
8 bere bidea / bidean / basoan / atera zen otsoa / eta berriro otsoa / baina nora zoaz Martin
9 Zaku? / ba banoa gaztelura / dirua galdetu behar diot erregeari / nahi duzu etorri
10 nirekin? / mais bai / etorriko naiz / orduan / otsoa sartu zen ere zakuan / baina gertatzen
11 zen da / gaztelura joateko / bazen ibai bat / eta pasatzeko ez zakien Martin Zakuk nola
12 egina / ordun pentsatu zuen / baina / esaten baldin badut ibaiari sartzeko nire zakuan /
13 sartuko da / eta gero joanen naiz gaztelura / hola egin zuen / eta ura kenduta / pasatu zen
14 ta joan zen gaztelura / baina gazteluan / jo zuen atea / eta morroia atera zen / zer nahi
15 duzu? / nahi dut sartu nahi dut galdetu dirua erregeari! / ba ez / joan hortik! / itxi zuen
16 atea / ta kanpoan gelditu zen Mattin Zaku / berriro jo zuen / eta azkenean / sartu zen
17 (4'') sartu zen / eta galdetu zuen / joan zen /e: erregeari galdetzera dirua / baina erregea
18 ez zuen nahi dirua eman / ordun esan zuen morroiari / eman oilotegira eta itxi atea /
19 oilotegiara ereman zuen eta oiloakin / mais zer egin behar dut orain? / ta pentsatu zuen /
20 aterako dut azeria! / eta azeria aterata / azeria oilo guztia jan zuen / biharramunean /
21 berriro etorri zen morroia ta / ikusiz oiloak jana zuela azeriak / ereman zuen berriro
22 erregeari / eta erregeak esan zuen / bana ze ze pasatu da / ba jan du oiloak / guztiak /
23 ordun esan zuen / ba ereman saldittegira / ta ereman zuen saldittegira / baina Martinek
24 hor pentsatzen zuen / baina zer egin behar dut orain? / eta hor otsoa atera zen zakutik /
25 eta otsoa zaldiak / zaldi guztiak jan zuen / ordun / morroia ereman zuen berriro / erregea
26 erregearengana / eta erregera oso haserre zen / ordun eman zuen Mattin Zaku makil
27 batera lotuta / eman zuen sua / (3'') / galdu naiz / eman zuen hor sua / eta pa /e: Mattin

28 Zaku esaten zuen / baina hemendik nola aterako naiz? / ba badut ura zakuan ordun / ura
29 aterata sua itzali zen / eta / ordun joan zen erregearengana ta erregea / oso beldurtuta zen
30 baina ze nahi duzu ze nahi duzu ordun orain? / ba dirua nahi dut / dirua / ordun erregea
31 bildu zuen diru guztiak gazteluaren / gazteluan zen diru guztia bildu zuen / eta eman
32 zuen Martin Zakuri / eta Marttin Zaku sartu zen etxean / bere zaku bete betea / eta
33 amakin oso pozik bizi ziren / hola / bukatu da / hala bazan kalabazan.

6- “MIARAM”

Donibane Lohizune, 2021-04-06

Ipuin kontalaria: “AMIRAS” (irakaslea)

Egoera: “AMIRAS” irakasleak Mattin Zaku ipuina kontatu ondoren, “MIARAM” ikasleak ipuina kontatzen dio “BEBERA” ikasleari, marrazkien laguntzarekin.

Iraupena: 6’ 25”

- 1 1. Horra / kontatuko dizut istorio ttiki bat / bere izena da Mattin Zaku / muttil ttiki hori
2 Mattin du izena / horrek / eta bere etxean bizitzen da bere amarekin / biziki pobreak
3 dira / orduan hor triste da eta nahi du zerbait egin bizia pixkat arintzeko / eta badaki
4 bere herrian ondoan bada gaztelu handi bat eta hor bizitzen / bizitzen da errege
5 erregin bat eta diru asko ditu / diru asko du / orduan pentsatzen du / mais joanen
6 naiz bera ikustera eta hola gure bizia arinduko da diruarekin / orduan / joaten da
7 zaku batekin / eta horrela Mattin Zaku / joaiten da eta bidean / lehen / hor ikusten
8 duzu / axeri ttiki bat / ez ttiki bat baina axeri bat / hor da eta gelditu / galdetu /
9 galdetzen dio / mais Mattin Zaku nora zoaz hola? / zer egin nahi duzu? / eta
10 erreposta /e: kontatzen du / nahi nuke dirua orduan joetan naiz gaztelura eta hola
11 galdeginen dut dirua / nahi duzu etorri nirekin? / a mais bai / zertako ez! / eta axeria
12 joaiten da pluf / zaku barnera / eta joaiten die / bidean berritz ikusten du otsoa / eta
13 otsoa pixkat harrtua da ere / mais Mattin Zaku nora zoaz hola eta zer egiten duzu?
14 /e:mais nire zakuarekin joaten naiz gaztelura / nahi nuke diru pittat zenta pobre gira
15 nire amarekin! / nahi duzu nirekin etorri? / a mais bai! / zertako ez! / eta pluf / zaku
16 barnera joaiten da / segitzen du bere bidea / eta behin batean ibai haundi bat / orduan
17 berarentzat ez da posible pasatzea / ezta zubirik / nola egin? / eta gero pentsatzen du
18 / a mais badut nire zakua / orduan ibaia pluf / ematen du bere zakuan ere / eta hor /e:
19 pasatzen ahal da / ez da urik joaiten da / gaztelura / eta hor / atean / tok tok tok / eta
20 marru bat etortzen da / nahi nuke erregina ikustea eta nahi nuke galdetu dirua / ba ba
21 ba çe la / eta joaiten da / orduan berritz / tok tok tok / nahi nuke / behar dut dirua /
22 pobre gira nik nahi dut dirua orain / orduan morroiak joaiten da erregina ikusterat ea
23 erraten zion / bon badugu hor mutil ttiki bat / zer egin? / eta erreginak erraten du /
24 eraman ezazue hor oilotegira / ta ikusiko dugu hor oiloak janen duen edo! / eta
25 joaiten da oilotegira / eta hor badu ideia / bere zakuan badu axeria / orduan erraten
26 du axeriari / axeria axeria / atera zaitez / eta oiloak denak jan ditu axeriak / orduan

27 gaua pasatzen da / eta biharramunean morroiak etortzen die / eta hor / mutil ttikia
28 bakarrik / eta ez da gehio olio / oilorik / baina erraiten dute erreginari / ba ez dakigu
29 baina dena jan du! / pobrea da baina bon / alors uain eramanen duzue zalditegira /
30 eramaten dute zalditegira / eta hor berritz erraten du / otsoa otsoa / atera zaitez eta
31 zaldi / zaldi horiei jan / jaten ahal duzu! / ahal dituzu! / eta otsoak dena jaten du /
32 biharramunean / erregina / sorpresa handia da / dena jaten du mutil ttiki horrek! /
33 nola posible da? / ematen du hor / egurra gainean eta sua / sua emanen dugu /
34 orduan berritz / bere zakuari / ibai ibai! / orain atera zaitez! / eta ibai / ez da gehio
35 surik eta ura joaiten da gaztelura / orduan erregina pixkat ikusten du bere / bere
36 gaztelua orduan erraten du / zer nahi duzu? / zer egin behar dut? / zer nahi duzu? /
37 nik dirua / dirua nahi dut! / ikusten duzu ura igotzen ari da / uain dirua (4'') nire
38 zaku bete / orduan erreginak hartzen du diru guzt / bere / bere / hor bere gelan / dena
39 / dena ematen zaio / ematen dio / eta bere zakuan ematen du dena / eta joaiten da
40 bere amarengana / bere / dirua badu / eta orain / bizia ikusten da / pozik die zenta ez
41 gehio pobreak / hala bazan edo ez bazan / ez dakit nola erran / bukatua da.